TOKI-ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(Azaroa, 2026)

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- 5551-2026 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko arazoa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriei dagokienez, xedapen horiek Espainiako Konstituzioaren 23.2 eta 149.1.18 artikuluak urra ditzaketelakoan. (2026ko irailaren 28ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/28/pdfs/BOE-A-2026-20001.pdf

- 5552-2026 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko arazoa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriei dagokienez, xedapen horiek Espainiako Konstituzioaren 23.2 eta 149.1.18 artikuluak urra ditzaketelakoan. (2026ko irailaren 28ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/28/pdfs/BOE-A-2026-20002.pdf

- 5959-2026 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko arazoa. Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriei buruzkoa da, xedapen horiek Espainiako Konstituzioaren 23.2 eta 149.1.18 artikuluak urra ditzaketelakoan. (2026ko irailaren 28ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/28/pdfs/BOE-A-2026-20003.pdf

- PJC/1004/2026 Agindua, irailaren 17koa, Ministro Kontseiluaren 2026ko irailaren 1eko Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez ezartzen baita udalerrietako justizia-bulegoen funtzionamendu-gastuak diruz laguntzera bideratutako eta 2026rako luzatutako 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako kreditua banatzeko modulua. (2026ko irailaren 28ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/28/pdfs/BOE-A-2026-20004.pdf

- Ebazpena, 2026ko urriaren 14koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoa-Gobernuaren Idazkaritzarena, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 2026ko urriaren 12ko autoaren xedapen-zatia argitaratzen duena; auto horrek ezetsi egiten du Estatuko Administrazio Orokorrak eta Estatistikako Institutu Nazionalak 2026ko irailaren 10eko autoaren aurka jarritako birjartze-errekurtsoa, 2026ko irailaren 10eko auto hori Iustitia Europa alderdi politikoak Hauteskunde Ba-

tzorde Zentralak 209/361 espedientean hartutako 2026ko uztailaren 16ko 204/2026 Erabakiaren aurka jarritako 1013/2026 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion kautela-neurrien pieza bereizian eman zelarik. (2026ko urriaren 15eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/15/pdfs/BOE-A-2026-21447.pdf

- Ebazpena, 2026ko urriaren 14koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoa-Gobernuaren Idazkaritzarena, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 2026ko urriaren 12ko autoaren xedapen-zatia argitaratzen duena. Auto horren bidez, Salak ezetsi egin zuen Estatuko Administrazio Orokorrak eta Estatistikako Institutu Nazionalak 2026ko irailaren 10eko autoaren aurka jarritako birjartze-errekurtsoa. Irailaren 10eko autoa 1015/2026 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren kautela-neurrien pieza bereizian eman zen. Vox alderdi politikoak jarri zuen auzi-errekurtso hori, oinarrizko eskubideak babesteko prozedura bereziaren bidez, Hauteskunde Batzorde Zentralak 209/361 espedientean hartutako uztailaren 16ko 204/2026 Erabakiaren aurka. (2026ko urriaren 15eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/15/pdfs/BOE-A-2026-21448.pdf

- Ebazpena, 2026ko urriaren 8koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, 2027ko lan-egutegiko jaiegunen zerrenda argitaratzen duena. (2026ko urriaren 13ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/13/pdfs/BOE-A-2026-21254.pdf

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- *Hamar urte Badajozeko argiteria publikoa eraldatzen*, César Rodríguez-Arbaizagoitia Calero (EYSMUNICIPALESen blogean argitaratua, 2026ko irailaren 2an)

https://www.eysmunicipales.es/articulos/diez-anos-de-transformacion-del-alumbrado-publico-de-badajoz

- *Burokrazia gutxitu, sinplifikatu, automatizatu…* baina, batez ere, pentsatu, bai aurretik, bai ondoren, Isaac Martín Delgado. Acento Local blogean argitaratua, 2026ko urriaren 14an

https://www.gobiernolocal.org/acento-local/desburocratizar-simplificar-automatizar-pero-antes-y-despues-sobre-todo-pensar/

- *Europako funtsekin finantzatutako dirulaguntzak itzultzean ere aplikatzen da proportzionaltasun-printzipioa, baina haren aplikazioa egokitu egin daiteke ez-betetzearen arrazoiaren arabera. Auzitegi Gorenaren 406/2026 epaia*, Ana García García (Acento Local blogean argitaratua, 2026ko urriaren 9an)

https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-principio-de-proporcionalidad-tambien-se-aplica-al-reintegro-de-subvenciones-financiadas-con-fondos-europeos-sin-perjuicio-de-su-modulacion-en-atencion-al-motivo-de-incumplimiento-sentencia-del-t/

- *Toki-erakundeetan irisgarritasun unibertsala nola gauzatu: araudia betetzea eta jardunbide egokiak*, María José Molina García (Acento Local blogean argitaratua, 2026ko urriaren 7an)

https://www.gobiernolocal.org/acento-local/como-hacer-efectiva-la-accesibilidad-universal-en-las-entidades-locales-cumplimiento-normativo-y-buenas-practicas/

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

***- Bateragarriak al dira pleguetan aurreikusitako kontratu-aldaketak eta aurreikusi gabekoak, eta, hala bada, metatu al daitezke bi aldaketa horien ehuneko-mugak?,* Fernando Luque Regueiro (Acento Local blogean argitaratua, 2026ko irailaren 30ean)**

https://www.gobiernolocal.org/acento-local/son-compatibles-las-modificaciones-contractuales-previstas-en-los-pliegos-y-las-no-previstas-y-en-tal-caso-son-acumulables-los-limites-porcentuales-de-ambas-modificaciones/

***- Emakidaren lilura faltsua: eragiketa-arriskua eta udalen kirol-ekipamenduak (ONEren 26013 txostena)*, Marcos Sánchez Siles (ObCPren blogean argitaratua, 2026ko urriaren 13an)**

https://obcp.es/opiniones/el-espejismo-concesional-riesgo-operacional-y-equipamientos-deportivos-municipales

***- Esleitu gabe geratzen diren lizitazioak: zer dioten datu irekiek eta zer egin dezakeen kontratazio-zerbitzuak argitaratu aurretik, Pablo Matheisek idatzia,* Maria Pilar Batet (egilearen lapartecontratante blogean argitaratua, 2026ko urriaren 8an)**

https://lapartecontratante.blog/2026/10/08/licitaciones-desiertas-que-dicen-los-datos-abiertos-y-que-puede-hacer-el-servicio-de-contratacion-antes-de-publicar-por-pablo-matheis/

- Gida praktikoa: gizarte- eta ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan, M. P. Batetek, Maria Pilar Batetek, idatzia. Egilearen lapartecontratante blogean argitaratua, 2026ko irailaren 30ean

https://lapartecontratante.blog/2026/09/30/guia-practica-criterios-sociales-y-ambientales-en-la-contratacion-publica-por-m-p-batet/

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentrala

- 1348/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 2koa. Auzitegiaren arabera, akta baten idazketan desadostasun formal hutsa egoteak ez du berez esan nahi Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 146.2 artikulua urratu denik. Horretarako, frogatu behar da formulen bidez ebaluatzekoak diren irizpideak behar baino lehen ezagutu zirela edo balorazio teknikoa baldintzatzeko arrisku erreala zegoela. Errekurtsogileak ez du bata ez bestea frogatu.

Auzitegiak gogorarazi du zergatik bereizten diren balio-judizio baten bidez ebaluatzeko irizpideak eta formulen bidez ebaluatzekoak: bigarren multzokoek balorazio teknikoa baldintza ez dezaten. Hortaz, SPKLren 146.2 artikulua urratu dela ondorioztatzeko, irizpide automatikoak benetan ezagutu behar izan dira behar baino lehen, eta ezagutza horrek balorazioan eragiteko modukoa izan behar du. Zehazki, gutun-azalak irekitzean izandako irregulartasunek prozedura deuseztatzea ekarriko dute soilik baldin eta frogatzen bada balorazioaren objektibotasunari edo inpartzialtasunari eragin ahal izan diotela.

Bestalde, Auzitegiak ondorioztatu du ezin dela esleipen-egintza gerora arrazoitu, eta deuseztat jo ditu bai esleipena, bai prozedura osoa.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200485-2026%20ib%2031-2026%20(res%201348)%2002-09-2026.pdf

- 1403/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 2koa. Auzitegiak gogorarazi duenez, SPKLren 52.3 artikuluak espedientea aztertzeko aukera ematen du defentsarako premia zehatz eta justifikatu bati erantzuteko. Ezin da izapide hori baliatu espedientea arakatu eta errekurtsoa jartzeko arrazoirik ba ote dagoen ikusteko hutsagatik.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200649-2026%20mu%2051-2026%20(res%201403)%2009-09-2026.pdf

- 1406/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiaren arabera, bereziki zorrotz arrazoitu behar da kontratazio-prozeduran atzera egiteko erabakia, dagoeneko hasitako lizitazio bat ondoriorik gabe uzten duelako eta lizitatzaileen bidezko itxaropenei eragiten dielako. Erabakia hartu zenean behar bezala arrazoitu ez bazen, kontratazio-organoak ezin du gabezia hori konpondu errekurtsoa dela-eta gerora emandako txosten baten bidez. Auzitegi Gorenaren doktrina ekarri du gogora Auzitegiak: prozeduran atzera egitea ez da Administrazioaren prerrogatiba bat. Ahal arautua da, eta arrazoi objektiboetan oinarritu behar du. Legeak babes hori ematen dio Administrazioari, kontratua prestatzean edo esleipen-prozeduran zuzendu ezineko lege-hausteren bat gertatu bada, kontratua egin ez dadin eta, hartara, alderdientzat eskubide eta betebeharrik sor ez dadin.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200696-2026%20val%20110-2026%20(res%201406)%2009-09-2026%20(1).pdf

- 1399/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak gogorarazi du dokumentazio guztia ezin dela, oro har, konfidentzialtzat jo; konfidentzialtasunak sekretu tekniko edo merkataritza-sekretuei buruzkoa izan behar du. Horren adibide da enpresari lehiarako abantaila ematen dion, hirugarrenek ezagutzen ez duten eta, enpresarentzat balio estrategikoa izanik, merkatuan lehiatzeko duen gaitasunari eragiten dion dokumentazioa Informazioa konfidentzialtzat jotzeko, hiru baldintza bete behar dira: a) enpresari lehiarako abantaila ematea; b) benetan isilpekoa izatea —hau da, hirugarrenek haren berri ez izatea—; c) enpresarentzat balio estrategikoa izateaz gain merkatuan lehiatzeko duen gaitasunean eragina izan ahal izatea.

Auzitegiak gaineratu du espedientea aztertzea defentsa-eskubidea baliatzeko bitarteko hutsa dela. Esleipen-ebazpena behar bezala arrazoituta egotea da baztertutako lizitatzaileak bere burua defendatu ahal izateko abiapuntua. Hortaz, espedienteko alderdi jakin batzuetarako irispidea eman beharko zaio lizitatzaileari, baldin eta justifikatuta badago errekurtsoa oinarritzeko alderdi horiek ezagutu behar dituela.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200607-2026%20%20ast%2031-2026%20(res%201399)%2009-09-2026.pdf

- 1402/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak berretsi du pleguak ezin direla eztabaidatu haiek aplikatzen dituzten egintzen aurkako errekurtso baten bidez, baldin eta, garaiz aurkaratu ez direlako, irmo bihurtu badira. Auzitegi Gorenaren doktrinaren arabera, pleguak kontratuaren legea dira: epe barruan aurkaratzen ez badira, irmo bihurtzen dira eta onartutzat jotzen dira. Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eVigilo auzian ezarritako doktrinari jarraituz, Auzitegi Gorenak salbuespen bat onartu du. Pleguen deuseztasun-kasuez gain, bada onartutako pleguak aurkaratzeko beste kasu bat ere. Prozedurari dagokionez, pleguak aurkaratzeko preklusio-epea ez da nahitaez hasten lizitazio-iragarkia argitaratzen denean. Lizitatzaileak «alegatutako arau-haustearen berri izan zuen edo izan behar zuen unean» hasten da. Auziaren funtsari dagokionez, berriz, pleguek «ulertezinak edo behar bezain argiak ez» izan behar dute behar adinako informazioa duen eta ohiko arduraz diharduen lizitatzaile batentzat, halako moldez non lizitatzaileak ezin izan duen benetan ulertu lizitazio-baldintzen norainokoa. Salbuespen hori hertsiki interpretatu behar da, eta inguruabar horiek egiaztatzen direnean baino ezin da aplikatu.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200647-2026%20val%2098-2026%20(res%201402)%2009-09-2026.pdf

- 1408/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak gogorarazi du, oro har, Administrazioak diskrezionalitate teknikoa duela balio-judizio baten mende dauden irizpideak aplikatzean. Horrek mugatu egiten du auzitegiek balorazio horiek berrikusteko duten ahalmena, eta eskatzen du txosten teknikoak ezagutza tekniko eta profesional egokiak dituzten pertsonek egitea. Arau orokor horrek, ordea, baditu mugak. Auzitegiek balorazioa berrikus dezakete arrazoibiderik eza, arbitrariotasuna, diskriminazioa edo ageriko akatsa antzematen badute. Objektibotasun- eta gardentasun-printzipioek eskatzen dute kontratazio-organoek behar bezala azaltzea zergatik eman dioten eskaintza bakoitzari dagokion balorazioa.

Arrazoibiderik ezak eskaintzen balorazioa eta kontratuaren esleipena deuseztatzea dakar, baita jarduketak txosten teknikoa eman behar zen unera atzera eramatea ere.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200730-2026%20ast%2039-2026%20(res%201408)%2009-09-2026.pdf

- 1400/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak gogorarazi du kontratazio-arloko errekurtso berezia ezin dela erabili ordenamendu juridikoak kontratazio-organoari berari bere egintzak ofizioz berrikusteko ematen dizkion mekanismoen ordez.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200611-2026%20(res%201400)%2009-09-2026.pdf

- 1409/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartu duten sozietate errekurtsogileek adierazi bezala, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, honako hau ezartzen du 24.1 artikuluan: “Aldi baterako enpresa-elkarteetan, kide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, Legearen 15. artikulutik 19.era bitartekoetan eta erregelamendu honen 9. artikulutik 16.era bitartekoetan xedatutakoaren arabera. Aldi baterako elkartearen kaudimena zehazteko, kide bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak batuko dira, hargatik eragotzi gabe sailkapenari dagokionez erregelamendu honen 52. artikuluan ezarritakoa”.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recursos%200733%20y%200750-2026%20(res%201409)%2009-09-2026.pdf

- 1410/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Botere adjudikatzaileak kontratua egiteari uko egitea erabaki du, interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 152. artikuluaren babesean. Horren ondorioz, errekurtsoa xederik gabe geratu da. Auzitegiak gai horri buruzko doktrina ekarri du gogora, eta atzera egitea eta ez esleitzea bereizi ditu. Prozeduran atzera egiteko, erabakia kontratua formalizatu aurretik hartu behar da, eta zuzendu ezineko prozedura-akats bat edo ordenamendu juridikoaren arau-hauste bat gertatu dela egiaztatu behar da. Kontratua esleitzeari uko egiteko, berriz, nahikoa da espedientean interes publikoko arrazoi bat dagoela justifikatzea.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200983-2026%20(res%201410)%2009-09-2026.pdf

- 1407/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi du enpresa batek beste baten kalitatea bermatzeko ziurtagiriak balia ditzakeela, ziurtagiri horiek ez baitira titularrak bakarrik baliatzekoak. Horretarako, botere adjudikatzaileari administrazio-agirian jakinarazi behar zaio zer dela-eta baliatzen diren beste enpresaren ziurtagiriak: lizitatzailea enpresa-talde bateko kide gisa aurkeztu delako, enpresek aldi baterako elkartea eratu dutelako edo lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko kanpoko baliabideetara jo

duelako. Hortaz, kaudimen-betekizuna kalitate-sistemak aplikatzen direla egiaztatzea bada, zilegi da horretarako kanpoko baliabideak erabiltzea.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200699-2026%20(res%201407)%2009-09-2026.pdf

- 1405/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Kontratazio-organoak zehatz eta argi idatzi behar ditu lizitazioaren baldintzak, baina ez ditu zertan aurreikusi praktikan gerta daitezkeen egoera guztiak. Halakoetan, bere ekimenez eska dezake akatsa zuzentzeko. Berdintasun-printzipioak horretarako aukera ematen dio, betiere lizitatzaile guztiei tratu bera ematen badie eta eskaintzaren edukia aldatzen ez bada. Argibideak ematean, eskaintzaren baldintzei eutsi behar zaie: ezin zaie hasieran zuten esanahia aldatu, ezta hasierako eskaintzan jasota ez zegoen baldintzarik gehitu ere. Funtsezkoa da argibideak emateko aukerak inori mesede-traturik ez ekartzea.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200691-2026%20val%20108-2026%20(res%201405)%2009-09-2026.pdf

- 1404/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. SPKLren 149.6 artikuluan aurreikusitako txostenaren xedea da, lizitatzaileak aurkeztutako justifikazioa aztertu ondoren, eskaintza proposatutako baldintzetan bete daitekeen ala ez zehaztea. Horretarako, lizitatzaileak planteatutako ordezko hipotesiak ikuspegi teknikotik, juridikotik edo ekonomikotik arrazoizkoak diren baloratu behar da.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200672-2026%20(res%201404)%2009-09-2026.pdf

- 382/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak ondorioztatu du, kasu honetan, SPKLren 168.3 artikuluaren arabera publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko arrazoiak argitara eman ez izana irregulartasuna dela. Horrek, ordea, ez du esleipena baliogabetzen, lizitazioaren memorian behar bezala justifikatu baitzen prozedura hori zergatik aukeratu zen.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200911-2026%20(res%201382)%2009-09-2026.pdf

- 1154/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiaren doktrinaren arabera, hirugarren sailkatuak ez du esleipena aurkaratzeko legitimaziorik, salbu eta bigarren sailkatua lizitazioan onartu izana ere aurkaratzen badu eta aurkaratze horrek aurrera egiteko aukerarik badu. Errekurtsoa baietsita ere errekurtsogileak zuzeneko onurarik lortuko ez badu, legitimaziorik ez duela ondorioztatu behar da. Doktrina finkatuaren arabera, esleipen-erabakia aurkaratzeko legitimazioa dute errekurtsoa baietsiz gero onura zehatz bat lor dezaketen lizitatzaileek bakarrik. Horregatik, lizitaziotik baztertutakoari ez zaio aitortu esleipen-erabakiaren aurka errekurtsoa jartzeko legitimaziorik, salbu eta prozedura deuseza dela deklaratzeko eskatzen badu eta arrazoi sendoak badaude kontratazio-organoak kontratua berriz lizitatuko duela pentsatzeko. Era

berean, azken sailkatuari ere legitimazioa aitortuko litzaioke, errekurtsoa baiesteak hari kontratua esleitzea ekarriko balu.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201154-2026%20(res%201391)%2009-09-2026.pdf

- 1392/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Lizitatzaileari akatsak zuzentzeko aukera eman ondoren, Administrazioak hark benetan aurkeztutako dokumentazioa oinarri hartuta ebatzi behar du. Ez dagokio epe berririk ematea edo akatsak zuzentzeko bigarren izapide bat eskaintzea. Beste errekerimendu bat egitea kontratazio publikoaren printzipioen aurkakoa litzateke: epeak eta prozedurako betekizunak betetzeko eskakizuna edukirik gabe utziko luke eta, azken batean, akatsak behin eta berriz zuzentzeko aukera emango luke, inolako mugarik gabe.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201251-2026%20(res%201392)%2009-09-2026.pdf

- 1395/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Lizitazio bateko pleguak aurkaratzeko, enpresaburuak (i) eskaintza aurkeztu behar du edo, (ii) eskaintzarik aurkeztu ezin izan badu, pleguetako baldintza diskriminatzaileek eragotzi diotela egiaztatu. Lehen kasuan, eskaintza aurkezteak ematen dio kontratuaren esleipendun izateko aukera, eta aukera horretan datza errekurtsoa jartzeko legitimazioa ematen dion interes legitimoa.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201142-2026%20ib%2078-2026%20(res%201395)%2009-09-2026.pdf

- 1398/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiaren doktrina finkatuak bereizi egiten ditu, batetik, lizitazioan onartua izateko betekizunak edo kaudimen-betekizunak eta, bestetik, kontratua gauzatzeko baldintzak. Lehenengoak ezartzean, ezin da lizitazioan parte hartzeko aukera bidegabe mugatu. Bigarrenak esleipendunari ezar dakizkioke, prestazioa behar bezala beteko dela bermatzeko objektiboki beharrezkoak direnean. Doktrina horren arabera, fabrikatzailearekin lotura jakin bat izateko eskakizuna onargarria da soilik kontratua gauzatzeko baldintza gisa ezartzen bada eta arrazoi tekniko objektiboek justifikatzen badute.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200599-2026%20(res%201398)%2009-09-2026.pdf

- 1394/2026 Ebazpena, 2026ko irailaren 9koa. Auzitegiak, salbuespenez, pleguak aurkaratzeko legitimazioa aitortu izan dio lizitazioan parte hartu ez duenari, baldin eta aurkaratutako baldintzak berak eragotzi badio gainerako lizitatzaileen baldintza beretan parte hartzea. Pleguetan ezarritako murrizketek errekurtsogileari lizitazioan parte hartzea eragotzi behar izan diote. Izan ere, kontratazioaren arloan ez da herri-akziorik onartzen, eta lizitazio-prozeduraren legezkotasuna modu abstraktuan defendatzeko interes hutsa ez da nahikoa errekurtsoa jartzeko.

Azken kasu horretan, Auzitegiak adierazi duenez, errekurtsogileak justifikatu behar du benetan zuela lizitazioan gainerako lizitatzaileen baldintza beretan parte hartzeko asmoa.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201088-2026%20(res%201384)%2009-09-2026.pdf

- 1545/2026 Ebazpena, 2026ko urriaren 1ekoa. Auzitegiak pleguen izaera lotesleari buruzko doktrina ekarri du gogora. Administrazioak prestatzen ditu pleguak, eta lizitatzaileak berariaz onartzen ditu eskaintza aurkeztean. Espainiako Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia finkatuaren arabera, pleguak kontratuaren legea dira, eta bai administrazio kontratatzailea bai lizitazioan parte hartzen dutenak lotzen dituzte.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200830-2026%20(res%201545)%2001-10-2026.pdf

- 1558/2026 Ebazpena, 2026ko urriaren 1ekoa. Auzitegi Gorenak behin eta berriz adierazi du interes legitimoa materiala nahiz morala izan daitekeela, baldin eta uziari baiesteak interesa duenari onuraren bat ekar badiezaioke. Legea betetzeko interes hutsa ez da nahikoa. Egiaztatu egin behar da eman beharreko ebazpenak benetako eragina izan dezakeela, zuzenean edo zeharka, errekurtsoa jarri duenaren edo auzitan ari denaren egoera juridikoan. Ez da aski etorkizunean eragina izan lezakeela suposatzea. Enpresa-elkarteen legitimazioari dagokionez, adierazi dugu kasu horien berezitasuna dela pertsona juridikoak bere kideen interesak defendatzeko jarduten duela. Horrenbestez, interes legitimoa aitortu behar zaio elkarteari, baldin eta errekurtsoa baiesteak kideei abantailaren bat ekarriko balie edo jasaten zuten karga edo desabantaila-egoera ezabatuko balu.

Auzitegiak gaineratu du hurbiltasun geografikoak benetako lotura izan dezakeela kontratuaren xedearekin, gorabeherei hobeto erantzuteko aukera ematen badu edo zerbitzuan objektiboki antzeman daitekeen hobekuntza badakar. Nolanahi ere, hurbiltasuna esleipen-irizpide gisa erabiltzeko, irizpideak objektiboa eta proportzionatua izan behar du, eta lotura estua izan behar du prestazioaren emaitzarekin. Lizitatzailea lehendik lurralde jakin batean kokatuta egote hutsak ezin dio, berez, esleipena lortzeko abantaila erabakigarririk eman.

https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200889-2026%20val%20155-2026%20(res%201558)%2001-10-2026.pdf

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa

- 95/2026 Irizpena, 2026ko uztailaren 14koa. Bidezain SL enpresari esleitutako "Tuneletan kable-lapurretak eragozteko sistemak mantentzeko zerbitzua" kontratua ebazteari buruzkoa.

Aurrekoa kontuan hartuta, Batzorde honek uste du ez dela bidezkoa "Tuneletan kable-lapurretak eragozteko sistemak mantentzeko zerbitzua" kontratua suntsiaraztea SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ez-betetzeagatik, prozedura hasteko epea preskribatu egin baita. Era berean, ez da bidezkoa bermea konfiskatzea.

Batzordeak Auzitegi Gorenaren 2025eko abenduaren 9ko epaian ezarritako doktrina hartu du oinarri nagusitzat: kontratua ebazteko ahala egikaritzea preskripzioaren mende dago. Kontratuen arloko legeriak ez duenez zehazten zer epetan erabaki behar den kontratuaren ebazpena, Salak adierazi du Aurrekontuen Lege Orokorraren 25.1.a) artikuluan ezarritako lau urteko preskripzio-epe orokorra aplikatu behar dela. Izan ere, administrazio-ahal horren egikaritzak ondorio juridiko kaltegarriak ditu, eta ondare-edukia du.

https://www.comisionjuridica.euskadi.eus/u78aMantenimientoWar/dokusi/verDoc/0901a0fe90f9306b?R01HNoPortal=true

- 9/2026 Erabakia, 2026ko uztailaren 1ekoa. Ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioa, CCC jaunak 2023ko San Fausto jaietan, zezensuzkoaren ekitaldian, jasandako kalteengatik.

Batzordeak espedientea Durangoko Udalari itzultzea erabaki du, instrukzioa osa dezan. CCC jaunak ebazpen-proposamenean izan zuen berak proposatutako froga ukatu izanaren berri, eta ez zuen bermatuta prozedura ebatzi aurretik bertan esku hartzeko aukerarik. Batzordearen iritziz, horrek defentsa-gabezia eragin ahal izan zion, bere interesak defendatzeko frogabide egokiak erabiltzea eragotzi baitzion. Horrenbestez, bidezkoa da prozedura atzera eramatea, instrukzioa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 77. artikuluak eskatzen duen moduan osatzeko.

Jarduketak atzera eramatearen beste xedea da entzunaldiaren izapidea osatzea, lege bereko 82.1 artikuluarekin bat. Batzordeak gogorarazi du, instrukzioa amaitutakoan, interesdunei espedientea erakutsi behar zaiela.

https://www.comisionjuridica.euskadi.eus/u78aMantenimientoWar/dokusi/verDoc/0901a0fe90f9a9a0?R01HNoPortal=true

- 93/2026 Irizpena, 2026ko uztailaren 1ekoa. Ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioa, EEE andreak … arduradunaren lanpostutik baztertu izanaren ondorioz jasandako kalteengatik.

Batzordeak adierazi du oraingoz ezin duela ondorioztatu ondare-erantzukizuna aitortzeko betekizunak betetzen direnik. Hori dela eta, komenigarria litzateke udalak prozedura etetea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 22.1.g) artikulua aplikatuz.

Batzordeak gogorarazi du erreklamazioan aipatutako kalte guztiak frogatu behar direla, baita kalte moralak ere. Kalte morala jasan dela esate hutsa ez da nahikoa. Alegatu eta frogatu behar da hautaketa-prozesua amaitu ondoren sortutako egoerak sufrimendu psikikoa edo izaera bereko bestelako nahasmendu edo gaitzen bat eragin diola EEE andreari.

https://www.comisionjuridica.euskadi.eus/u78aMantenimientoWar/dokusi/verDoc/0901a0fe90f50de2?R01HNoPortal=true

- 91/2026 Irizpena, 2026ko uztailaren 1ekoa. Ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioa, bide publikoko eserleku bat erortzearen ondorioz AAA andreak jasandako kalteengatik.

Batzordeak adierazi duenez, kaltea Administrazioari zerbait egin ez izanagatik egozten zaionean, arrazoizko funtzionamenduaren estandarra hartu behar da kontuan. Estandar hori ezin da erabatekoa izan, administrazio publikoei arrazoiz eska dakiekeena gaindituko bailuke. Hala balitz, ordenamendu juridikoak aurreikusten ez duen erantzukizun-sistema ezarriko litzateke: administrazioak arrisku ororen aseguratzaile bihurtuko lirateke, herritarrei gerta lekiekeen edozein ezbehar edo kalte saihestu beharko bailukete, beren jarduna edozein izanik ere.

Kasu honetan, udal-ingeniariaren txostena oinarri hartuta, ondare-erantzukizuna dagoela aitortu da.

https://www.comisionjuridica.euskadi.eus/u78aMantenimientoWar/dokusi/verDoc/0901a0fe90dde805?R01HNoPortal=true

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

- 795/2026 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, abuztuaren 26ko 705/2026 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken horren bidez onartu zen Ceuta hirian segurtasun nazionalerako intereseko egoeran erabili beharreko baliabideen adierazpena, Segurtasun Nazionalari buruzko irailaren 28ko 36/2015 Legearen 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. (2026ko irailaren 30eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/30/pdfs/BOE-A-2026-20384.pdf

- Ebazpena, 2026ko irailaren 23koa, Diputatuen Kongresuarena, irailaren 8ko 23/2026 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko zerga- eta finantza-neurriak hartzen dira La Palma uhartearen berreraikuntza ekonomiko eta sozialean laguntzeko. Halaber, inbertsioak gauzatzea sustatzeko neurriak hartzen dira 2026a baino lehenagoko ekitaldietako aurrekontu-superabitak eta aplikatu gabeko finantzaketa-soberakinak erregistratu dituzten autonomia-erkidegoetarako. (2026ko irailaren 25eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/09/25/pdfs/BOE-A-2026-19845.pdf

- 27/2026 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen egonkortasuna sendotzeko premiazko neurriak hartzen dituena. (2026ko urriaren 1eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/01/pdfs/BOE-A-2026-20385.pdf

- Ebazpena, 2026ko urriaren 2koa, Diputatuen Kongresuarena, irailaren 29ko 26/2026 Errege Lege Dekretua indargabetzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren etxebizitzaren funtzio soziala babesteko eta etxebizitza eskuragarrien eskaintza handitzeko. (2026ko urriaren 2ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/02/pdfs/BOE-A-2026-20526.pdf

- Ebazpena, 2026ko urriaren 2koa, Diputatuen Kongresuarena, irailaren 29ko 27/2026 Errege Lege Dekretua indargabetzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen egonkortasuna sendotzeko. (2026ko urriaren 2ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/02/pdfs/BOE-A-2026-20527.pdf

- 4/2026 Legea, urriaren 1ekoa, desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako, autonomiarako eta irisgarritasun unibertsalerako eskubideak zabaltzeko eta sendotzeko bi arau aldatzen dituena, Espainiako Konstituzioaren 49. artikuluarekin bat. Batetik, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzen du, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Bestetik, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aldatzen du. (2026ko urriaren 3ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/03/pdfs/BOE-A-2026-20528.pdf

- HAC/1028/2026 Agindua, urriaren 2koa, fakturazio elektronikorako irtenbide publikoa arautzen duena, martxoaren 25eko 238/2026 Errege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenarekin bat. Errege-dekretu horrek enpresaburuen eta profesionalen arteko nahitaezko fakturazio elektronikoaren sistema garatzen du eta fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua aldatzen du. Azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori. (2026ko urriaren 5eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/05/pdfs/BOE-A-2026-20587.pdf

- 806/2026 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, Diputatuen Kongresua eta Senatua desegitekoa eta hauteskundeetarako deialdia egitekoa. (2026ko urriaren 6ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/06/pdfs/BOE-A-2026-20742.pdf

- 28/2026 Errege Lege Dekretua, urriaren 6koa, ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen egonkortasuna sendotzeko premiazko neurriak hartzen dituena. (2026ko urriaren 7ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/07/pdfs/BOE-A-2026-20822.pdf

- 29/2026 Errege Lege Dekretua, urriaren 6koa, etxebizitzaren funtzio soziala babesteko eta etxebizitza eskuragarrien eskaintza handitzeko premiazko neurriak hartzen dituena. (2026ko urriaren 7ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/07/pdfs/BOE-A-2026-20823.pdf

- 4/2026 Lege Organikoa, urriaren 13koa, Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorraren 80. artikulua aldatzen duena, lege-ondorioetarako espetxe-administrazioko funtzionarioei agintaritzaren agente izaera aitortzeko. (2026ko urriaren 14ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/14/pdfs/BOE-A-2026-21317.pdf

- 30/2026 Errege Lege Dekretua, urriaren 13koa, Ceutako Hiriari finantza-laguntza emateko aparteko eta premiazko neurriak onartzen dituena. (2026ko urriaren 14ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/14/pdfs/BOE-A-2026-21318.pdf

- 824/2026 Errege Dekretua, urriaren 14koa, martxoaren 9ko 141/2021 Errege Dekretuaren bidez onartutako doako laguntza juridikoaren erregelamendua aldatzen duena. (2026ko urriaren 15eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/15/pdfs/BOE-A-2026-21445.pdf

- 825/2026 Errege Dekretua, urriaren 14koa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren estatutu organikoa aldatzen duena. Estatutu hori abuztuaren 30eko 657/2013 Errege Dekretuaren bidez onartu zen. (2026ko urriaren 15eko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/15/pdfs/BOE-A-2026-21446.pdf

Euskal Autonomia Erkidegoa

- 153/2026 Dekretua, irailaren 22koa, Euskadiko Sozietate Zibilen Erregistroari buruzkoa. (2026ko urriaren 7ko EHAA)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/10/2604137a.pdf

Arabako Lurralde Historikoa

- Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako hauteskunde-atalen, hauteskunde-mahaien eta hauteslekuen zerrenda argitaratzea.**. (2026ko urriaren 12ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2026/117/2026_117_02870_C.pdf

- Arabako Probintziako Hauteskunde Batzordea eratzea, 2026ko azaroaren 29ko Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako.**. (2026ko urriaren 12ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2026/117/2026_117_02915_C.pdf

- Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzea, 2026ko azaroaren 29ko Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako.**. (2026ko urriaren 12ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2026/117/2026_117_02916_C.pdf

Bizkaiko Lurralde Historikoa

- Hautesle Erroldaren Bulegoa. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/10/12/IV-130_cas.pdf

- Bizkaiko Probintziako Hauteskunde Batzordearen ziurtagiria. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/10/12/V-95_cas.pdf

- Bilboko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/10/12/V-90_cas.pdf

- Durangoko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/10/12/V-93_cas.pdf

- Gernika-Lumoko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/10/12/V-89_cas.pdf

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 2026ko azaroaren 29rako deitutako hauteskundeetarako hauteskunde-atalen, hauteskunde-mahaien eta hauteslekuen behin-behineko zerrenda. (2026ko urriaren 12ko BAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/12/c2606677.pdf

- Gipuzkoako Probintziako Hauteskunde Batzordea eratzea. (2026ko urriaren 14ko GAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/14/c2606707.pdf

- Azpeitiko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzea. (2026ko urriaren 14ko GAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/14/c2606706.pdf

- Bergarako Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzea. (2026ko urriaren 14ko GAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/14/c2606704.pdf

- Donostiako eta Irungo Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzea. (2026ko urriaren 14ko GAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/14/c2606705.pdf

- Tolosako Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzea. (2026ko urriaren 14ko GAO)

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/10/14/c2606713.pdf

Nafarroako Foru Komunitatea

- 15/2026 Foru Legea, irailaren 24koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena. (2026ko urriaren 6ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/06/pdfs/BOE-A-2026-20747.pdf

- 2026ko azaroaren 29ko hauteskundeetarako hauteskunde-atalak, hauteslekuak eta hauteskunde-mahaiak. (2026ko urriaren 12ko NAO)

https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2026/203/0

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Asturiasko Autonomia Erkidegoa

- Asturiasko Printzerriaren 6/2026 Legea, irailaren 10ekoa, bizitzeko ezinbestekoak diren eskubideak eta prestazioak bermatzeko ekainaren 30eko 3/2021 Legea aldatzen duena. Aldaketaren helburua da onuradunak babestea, Administrazioari egoztekoak diren jarduketen ondorioz jasotako prestazioak itzultzeko eskatzen zaienean. (2026ko urriaren 6ko BOE)

https://www.boe.es/boe/dias/2026/10/06/pdfs/BOE-A-2026-20746.pdf

JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- Justizia Auzitegiko Lehen Salaren epaia, 2026ko urriaren 8koa. Asteko gehieneko lanaldia gainditzeagatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:62024CJ0808

Auzitegi Gorena

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3658/2026) Auzitegi Gorenaren 1001/2026 epaia, 2026ko irailaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak doktrina hau finkatu du: plan orokorra argitaratu ez bada, ez du eraginkortasunik. Horren ondorioz, hura garatzen duen plangintza —plan partziala, esaterako— erabat deuseza da, ez baitu plan orokorrak nahitaez eman behar dion arau-babesik. Hortaz, hirigintza-plangintzako tresna bat zeharka aurkaratzeko errekurtsoa oinarritu daiteke tresna horren sorburu den plangintza orokorra onestean izapideren bat bete ez izanean; zehazki, plangintza orokorra argitaratu ez izanean.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/04909d09cedc0052a0a8778d75e36f0d/20260917

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3681/2026) Auzitegi Gorenaren 999/2026 epaia, 2026ko irailaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezarri duenez, interesdunari kargak ezartzeko prozedura batean Administrazioak gehieneko epea ebazpenik eman gabe igarotzen uzten badu, prozedura berez iraungitzen da, horretarako berariazko egintzarik behar izan gabe. Hala ere, Administrazioak ebazpen espresua eman behar du prozedura iraungi dela deklaratzeko. Xede bereko beste prozedura bat hasteak ez du balio aurrekoa isilbidez iraungitzat jotzeko.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d33e1c8e396a8405a0a8778d75e36f0d/20260917

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3771/2026) Auzitegi Gorenaren 1003/2026 epaia, 2026ko irailaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluak informazioa emateko ezartzen duen betebeharrak zerbitzu publikoak ematen dituzten egitatezko emakidadunak ere hartzen ditu. Lotuta dauden administrazioak hala eskatzen dienean, zerbitzu horri dagozkion gardentasun-betebeharrak betetzeko behar duen informazioa eman behar diote. Betebeharrak indarrean dirau, nahiz eta kontraturik formalizatu ez edo kontratuan informazioa emateari buruzko klausularik ez jaso.

- Merkataritza-sozietate baten salerosketari buruzko informazioa zabaltzeak kalte egin diezaieke sozietatearen edo kontratugileen interes ekonomiko eta komertzialei. Nolanahi ere, 19/2013 Legearen 14.1.h) artikuluan aurreikusitako muga aplikatzeko, arrazoi zehatzen bidez justifikatu behar da kalte hori. Arrazoiak eskatutako informazioaren izaeran eta irismenean oinarritu daitezke. Ez da nahikoa, ordea, kontratua pribatua dela, eduki ekonomikoa duela edo konfidentziala dela esatea. Kaltea egiaztatuz gero, 14.2 artikuluaren arabera haztatu behar da ea informazioa eskuratzea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu nagusiagorik dagoen.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9fe8f07903b2ab9da0a8778d75e36f0d/20261001

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3638/2026) Auzitegi Gorenaren 1005/2026 epaia, 2026ko irailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak argitu du bi epe hartu behar direla kontuan berrikuspen-errekurtsoa jartzeko. Bost urteko epe orokorra epaia argitaratzen den egunetik zenbatzen da. Hiru hilabeteko epea, berriz, agiri erabakigarriak aurkitzen diren egunetik, funtzionario-eroskeria, indarkeria edo iruzurra agerian geratzen den egunetik, edo faltsutasuna aitortzen edo deklaratzen den egunetik. Hiru hilabeteko epea iraungitze-epea da. Ezin da eten, eta, behin iraungita, ezin da berriz ireki. Data batetik bestera zenbatzen da, egun baliogabeak edo abuztua kendu gabe. Izan ere, abuztuko egunak jarduketa judizialak egiteko baino ez dira baliogabeak.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/333206bdb95a0a09a0a8778d75e36f0d/20260917

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3727/2026) Auzitegi Gorenaren 1006/2026 epaia, 2026ko irailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hiru arautako xedapenak interpretatu ditu: Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 23.3.c) artikulua; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarraren b) letra, azken xedapenetako laugarrenaren 2. apartatua eta testu bateginaren 40.1 artikulua; eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 15.3 artikulua. Ekainaren 10eko 727/2026 epaian (5828/2024 errekurtsoa) ezarritako jurisprudentzia berretsiz, honako hau adierazi du:

1.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubideak administrazio publikoen jarduna gidatzen du, printzipio objektibo gisa. Horrez gain, herritarrek administrazio publikoen aurrean balia dezaketen eskubide subjektibo konstituzionala da. Demokraziaren eta gardentasunaren eskakizunetatik dator, eta zuzenbide-estatu demokratikoaren oinarriei estu lotuta dago.

2.- Enplegu publikoko ordainsarien gardentasunaren printzipioa kontuak emateko printzipio demokratikoaren adierazpen bat da, herritarrei eta enplegatu publikoen ordezkariei gastu publikoaren kontrol demokratikoa ahalbidetzen baitie, egiaztatuz langileen ordainsarietara bideratutako baliabideak legearen arabera esleitzen direla, berdintasun-printzipioaren arabera eta merezimendu- eta gaitasun-irizpide objektiboak errespetatuz, bai eta administrazio on batek eskatzen duen eraginkortasunarekin kudeatzen direla ere.

3.- Enplegatu publiko izateak mugatu egiten du pribatutasun-eremua lanpostuari eta zerbitzuak ematen dituen administrazio-antolamenduari lotutako lanbide-datuei dagokienez, bereziki nortasun-datuei dagokienez, batez ere ordainsariei buruzko informazio indibidualizatua eskuratu nahi denean, hala nola produktibitateagatiko ordainsarien eta aparteko haborokinen kasuan.

Horregatik, informazio hori eskuratzea, printzipioz, arau orokorra izan behar da, eta interes publikoa lehenetsiko da lanpostuen titularren datu pertsonalen esparruan izan daitekeen zeharkako eraginaren gainetik, datu horiek Administrazioan egindako lan edo jarduera publikoari lotuta baitaude.

4.- Ordezkari sindikalek eskubidea dute funtzionario bakoitzak produktibitate-osagarri gisa jasotzen dituen zenbatekoei buruzko informazio publikoa eskuratzeko.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e2a563b884b2576ca0a8778d75e36f0d/20260924

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3732/2026) Auzitegi Gorenaren 1014/2026 epaia, 2026ko irailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen laugarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako hamalaugarrenak aukera ematen dute kontratu publikoak edo haien sortetako batzuk gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat erreserbatzeko. Arauketa horrek ez du urratzen tratu-berdintasunaren printzipioa, ezta proportzionaltasun-printzipioa ere.

- Erreserbaren helburua desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da. Helburu hori zilegi da, Konstituzioaren 49. artikuluan eta 2014/2024/EB Zuzentarauan jasotako printzipioen arabera. Helburua eraginkortasun handiagoz eta pertsona horientzat onuragarriagoa den modu batean lor daiteke irizpide erabat objektiboak soilik erabiliz. Halako irizpide bat da gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien berezko ezaugarri hau: beren jarduera ekonomikoaren bidez lortutako irabazi guztiak zentroetan bertan berrinbertitzeko konpromisoa hartzen dute, beren lehiakortasuna eta gizarte-ekonomiaren arloan egiten duten lana etengabe hobetzeko.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/56e33c5a54c1f6eea0a8778d75e36f0d/20260924

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3724/2026) Auzitegi Gorenaren 1010/2026 epaia, 2026ko irailaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Azken batean, kasazio-auziari erantzunez, adierazi behar dugu hirigintza-lizentziak deuseztatzen direnean ez dagoela kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik lizentziarik gabe egindako obra-zatiagatik, nahiz eta geroago legeztatu izan.

Salaren iritziz, auzia kausazko loturaren ikuspegitik aztertu behar da. Nolanahi ere, kaltearen antijuridikotasuna abiapuntutzat hartuta ere, zaila litzateke bestelako ondorio batera iristea. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32. artikuluaren arabera, kaltea antijuridikoa da kaltedunak hura jasateko legezko betebeharrik ez duenean. Lizentziarik gabe eraikitzearen berezko ondorioa, berriz, lurzorua lehengo egoerara itzultzea da, bidegabe eraikitakoa eraitsiz. Hortaz, herritarrak obrak hasi aurretik hirigintza-lizentzia eskatzeko oinarrizko betebeharra urratu badu, obrak gerora legeztatu ahal izateak ez du, berez, ez-betetzearen ondorioak jasateko legezko betebeharretik salbuesten, aparteko inguruabarrik gertatu ezean.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f6a9f0537b2b4471a0a8778d75e36f0d/20260924

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3725/2026) Auzitegi Gorenaren 1009/2026 epaia, 2026ko irailaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Prestazioetan oinarritutako konponbideak dituzten proiektuei buruzko hirigintza-kontsulta herritarrei informazioa emateko tresna da. Kontsultak egiteko eskubide orokorrak hirigintzan duen adierazpena da: interesdunak informazioa eta orientabideak jaso ditzake egin asmo dituen proiektu, jarduketa edo eskaerei indarreko arauek ezartzen dizkieten betekizun juridiko eta teknikoei buruz.

Kontsultari emandako erantzuna administrazio-egintza bada ere, ezin da bere aldetik aurkaratu, eta ez du baldintzatzen Administrazioak gerora emango duen behin betiko ebazpena. Izapidearen bidez informazioa baino ez da ematen: ez da gaiari buruzko erabakirik hartzen, eta erantzunaren edukia ez da inoiz loteslea Administrazioarentzat. Hala ere, informazioa emateko izapidea izateak ez du justifikatzen erantzuteko eperik ez egotea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 21. artikuluan ezarritako araua aplikatu behar baita.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8dd489fc43d5b80da0a8778d75e36f0d/202609247

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3764/2026) Auzitegi Gorenaren 1012/2026 epaia, 2026ko irailaren 15ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2023ko ekainaren 8an Prestige and Limousine auzian (C-50/21) ezarritako doktrinaren arabera, Auzitegi Gorenak adierazi du ez dela aplikatu behar Kanarietako Errepideko Garraioa Antolatzeko maiatzaren 17ko 13/2007 Legearen 79 quinquies artikuluaren 2. apartatua, azaroaren 6ko 9/2014 Legeak emandako idazkeran. Horretarako ez dago epaitu aurreko beste arazo bat planteatu beharrik. Xedapen horrek eragotzi egiten du gidaridun ibilgailuak alokatzeko baimen (VTC baimen) gehiago ematea, hogeita hamar taxi-baimeneko VTC baimen bateko proportzioa gainditzen denean. Epai hark ebatzitako auziaren eta oraingoaren artean alegatu diren aldeek ez dute eragozten doktrina bera Kanarietako araudiari aplikatzea. Auzian, Kanariak eskualde ultraperiferikoa izatea, artxipelagoaren lurralde-ezaugarriak eta garraio-legeriaren helburuak aipatu dira muga justifikatzeko. Arrazoi horiek, ordea, ez dute behar bezala egiaztatzen neurria egokia denik Kanarietako Autonomia Erkidegoan garraioa, trafikoa eta espazio publikoa ongi kudeatzeko eta ingurumena babesteko helburuak modu koherente eta sistematikoan lortzeko. Era berean, ez dute egiaztatzen neurriak helburu horiek lortzeko behar dena gainditzen ez duenik. Horrenbestez, ez dago justifikatuta muga horrek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 49. artikuluan aitortutako kokatzeko askatasunari ezartzen dion murrizketa.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/53bcc1c39d645c8ea0a8778d75e36f0d/20261001

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3755/2026) Auzitegi Gorenaren 1011/2026 epaia, 2026ko irailaren 15ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi du espetxeetako osasun-zaintzak produktibitate-osagarriaren bidez ordain daitezkeela eta, horrez gain, atsedenaldi gehigarria eman daitekeela. Izan ere, zalantzarik gabe, osasun-zaintza horietan emandako denbora lan-denbora da.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a8bf7eabbe7f034ca0a8778d75e36f0d/20261001

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3732/2026) Auzitegi Gorenaren 1014/2026 epaia, 2026ko irailaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du Donostiako Udalak jarritako kasazio-errekurtsoa, eta deuseztatu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Confederación Nacional de Centros Especiales de Empleo erakundearen alde emandako epaia. Auzitegi Gorenaren arabera, gizarte-ekimenekoak ez diren enplegu-zentro bereziak kontratu publikoen erreserbatik kanpo uzteak ez ditu urratzen 2014/24/EB Zuzentarauan eta Espainiako Konstituzioan ezarritako berdintasun- eta proportzionaltasun-printzipioak. Estatuko legeriak helburu zilegi bat du, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea, eta, horretarako, gizarte-ekimeneko zentroen izaerari eta helburuei lotutako irizpide objektiboak erabiltzen ditu.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/56e33c5a54c1f6eea0a8778d75e36f0d/20260924

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3733/2026) Auzitegi Gorenaren 1013/2026 epaia, 2026ko irailaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Errekurtsogileak mediku gisa lan egin zuen titulartasun publikoko baina kudeaketa pribatuko ospitale batean. Haren enplegatzailea erakunde pribatu bat zen, osasun-zerbitzu publikoa administrazio-emakida bidez kudeatzeko ardura zuena. Auzitegi Gorenaren arabera, zerbitzu horiek kontuan hartu behar dira Administrazio Publikoan aurretiaz emandako zerbitzuak aitortzeko.

Salak 70/1978 Legearen 1. artikuluaren interpretazio zabala eta funtzionala egiten duen jurisprudentzia hartu du oinarri: emandako osasun-zerbitzuaren izaera publikoari eman dio lehentasuna, enplegatzailearen forma juridikoaren gainetik. Irizpide horrek estatutupeko langileen lanbide-karreran berdintasuna eta jarraitutasuna bermatzen ditu, eta eragozten du Administrazioak zerbitzua zeharka kudeatzeak langileei justifikaziorik gabeko kalterik eragitea. Horrenbestez, Auzitegi Gorenak doktrina hau finkatu du: osasun-zerbitzu publikoaren emakida duten enpresetan aurretiaz emandako zerbitzuak zenbatu egin behar dira hirurtekoak aitortzeko.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b6aa74072a150a08a0a8778d75e36f0d/20260930

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3840/2026) Auzitegi Gorenaren 1016/2026 epaia, 2026ko irailaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, administrazioarekiko auzien kide bakarreko organo judizialen aurrean jarduteko, nahikoa da elkargo profesionalak doako laguntza juridikoaren onuradunari ofiziozko prokuradorea izendatzea, hark onuraduna legez ordezka dezan. Onuradunak ez dio ordezkaritza berriz eman behar notario-ahalordearen edo apud acta agerraldiaren bidez. Izan ere, elkargoak egindako izendapenaren xede bakarra interesdunaren ordezkaritza prozesala prokuradoreari ematea da, eta, beraz, alferrikakoa da ordezkaritza hori ezarritako bideetako baten bidez berriz emateko eskatzea.

Argi ezartzen da doako laguntza juridikoaren kasuetan elkargo profesionalak ofiziozko prokuradorea izendatzeak baliozko ordezkaritza prozesala ematen duela, beste formalitaterik bete beharrik gabe. Horrela, prozedura praktikako errealitatera egokitzen da, eta saihestu egiten dira zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei —hala nola itzulketa-ebazpenen eraginpean dauden atzerritarrei— justiziara jotzeko oinarrizko eskubidea benetan baliatzea eragotz liezaieketen betekizun formalak.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3be8e288dfcf443da0a8778d75e36f0d/20261001

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STS 3831/2026) Auzitegi Gorenaren 1031/2026 epaia, 2026ko irailaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio errekurtsogileari legitimazioari dagokionez. Itsua izanik, auzitan den ministerio-agindua aurkaratzeko legitimazio aktiboa du, arauak eragina izan baitezake Konstituzioak aitortzen dizkion eta gainerako arauek garatzen dituzten eskubideetan. Instantzian, zuzeneko eraginik ez zegoela argudiatu zen legitimazioa ukatzeko. Auzitegi Gorenak, ordea, argitu du arau orokor eta iraunkorrak aurkaratzeko nahikoa dela arauak errekurtsogilearen eskubideetan eragina izan ahal izatea. Auziaren funtsari dagokionez, Auzitegiak aginduaren 5.3, 12 eta 33. artikuluak aztertu ditu. Ondorioztatu du ez dutela goragoko araurik urratzen eta ez direla legez kontrakoak, eta, horrenbestez, deuseztatzeko uziak ezetsi ditu. Horrenbestez, kasazioan deuseztatu egin du errekurtsoa izapidetzeko onartu ez zuen epaia, baina ezetsi egin du aginduaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta agindua ordenamendu juridikoarekin bat datorrela deklaratu du. Epaiak aldaketa esanguratsua ezartzen du desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eragiten dieten xedapen orokorren aurkako errekurtsoak jartzeko legitimazio aktiboari buruzko jurisprudentzian, eta pertsona horien eskubideen babes eraginkorraren interpretazioa zabaltzen du.

Epaiak legitimazio aktiboaren interpretazio zabala eta babeslea azpimarratzen du, bereziki desgaitasuna duten pertsonen eskubide konstituzionalak bermatzera bideratutako xedapen orokorrak aurkaratzen direnean. Ildo horretan, aitortzen du nahikoa dela eskubide horiek benetan edo etorkizunean ukituak izateko aukera egotea desgaitasuna duen pertsona batek legitimazio aktiboa duela ulertzeko. Horrela, oinarrizko eskubideen interpretazio bermatzailea sendotzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esparruan.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d46ee9ac894b91b0a0a8778d75e36f0d/20261001

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1041/2026 epaia, 2026ko irailaren 23koa (Roj: STS 3766/2026). Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio Administrazioari, eta 895/2025 eta 1249/2025 epaietan ezarritako doktrina berretsi du. 20/2021 Legearen 2.6 artikuluko konpentsazio ekonomikoa lege horrek berariaz araututako egonkortzeko hirugarren hautaketa-prozesua gainditu ez eta, horren ondorioz, kargutik kendutako bitarteko funtzionarioei baino ez dagokie. Legea indarrean jarri aurretik deitutako egonkortze-prozesuei ez zaie xedapen hori aplikatzen, nahiz eta funtzionarioaren kargu-uztea geroago gertatu. Auzitegiak ez du bidezko jo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari epaitu aurreko arazoa planteatzea, behin-behinekotasunaren gehiegizko erabilerari eta diskriminazioari buruzko alegazioak ez baitira erabakigarriak auzia ebazteko. Funtzionarioaren errekurtsoa ezetsi, instantziako epaia deuseztatu eta eskatutako konpentsazioa ukatzeko erabakia berretsi du. Horrela, araua zer prozesuri eta noiztik aplikatzen zaien zehaztu du: legea indarrean jarri ondoren deitutako prozesuei soilik aplikatzen zaie, aipatutako baldintzetan.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/153f2e206d4530b9a0a8778d75e36f0d/20261001

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1044/2026 epaia, 2026ko irailaren 23koa (Roj: STS 3763/2026).

Auzitegi Gorenaren arabera, dirulaguntza modala edo baldintzapekoa da. Onuradunari jokabide jakin bat izateko edo jarduera jakin bat egiteko betebeharra ezartzen zaio, eta betebehar hori ez betetzea dirulaguntzaren baldintza suntsiarazlea da. Baldintzak betetzen ez badira, Administrazioak dirulaguntza itzultzeko egiten duen eskaera zuzenbide publikoko zor bat erakunde onuradunari erreklamatzeko bidea da. Erabaki kaltegarria hartu edo egintza kaltegarria gauzatu duen administrazio-organoko kide guztiek erantzukizun solidarioa dute. Erantzukizunetik salbuesteko, kideak frogatu behar du ez zuela parte hartu erabakia hartzen edo egintza gauzatzen, eta, horrez gain, ez zuela haren berririk izan edo, haren berri bazuen, kaltea eragozteko egin beharreko guztia egin zuela edo, gutxienez, berariaz agertu zela haren aurka.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6be5fe9af0889072a0a8778d75e36f0d/20261001

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1046/2026 epaia, 2026ko irailaren 23koa (Roj: STS 3757/2026).

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako gizarte-zerbitzuen arloko ekintza itunduko akordioek 750.000 euroko atalase ekonomikoa gainditzen dutenean, 2014/24/EB Zuzentarauaren kontratazio publikoari buruzko araudiaren mende daude publizitate-printzipioari dagokionez (75. artikulua). Printzipio hori betetzeko, lizitazio-iragarkia edo aldez aurreko informazio-iragarkia argitaratu behar da. Hala ere, akordio horiei ez zaie aplikatu behar Zuzentarauaren 77.2.d) artikuluan ezarritako muga, zeinak eragozten baitu aurreko hiru urteetan zerbitzu horiek eman

dituzten erakundeei kontratua adjudikatzea. Horrela, zerbitzuaren jarraitutasuna ahalbidetzen da, gardentasunaren eta lehiaren irizpideak errespetatuz.

Auzitegi Gorenak arrazoia eman die, nagusiki, Valentziako Generalitateari eta zerbitzuen arloko elkarteetako bati, eta aitortu du mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako gizarte-zerbitzuak emateko ekintza itunduko akordioek, ezarritako atalase ekonomikoa gainditzen dutenean, 2014/24/EB Zuzentarauaren 75. artikuluan aurreikusitako publizitate-betekizuna bete behar dutela. Horrenbestez, publizitate-betekizun hori ez betetzeak deuseztasuna dakar. Hala ere, Auzitegiak baztertu egin du Zuzentarauaren 77.2.d) artikuluko betekizuna aplikatzea. Artikulu horrek eragotzi egiten du aurreko hiru urteetan antzeko zerbitzuak eman dituzten erakundeei kontratuak adjudikatzea. Izan ere, muga hori ez dator bat akordio horien helburuarekin eta izaera sozialarekin, ezta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren interpretazioarekin ere, azken horrek kontratazio-formulen ordezko beste formula batzuk erabiltzea ahalbidetzen baitu, betiere betekizun zorrotzak betetzen badira. Horrenbestez, aurreko epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa baietsi da, auzialdiko epaia deuseztatu da eta, ondorioz, aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak baietsi dira, aurkaratutako administrazio-ebazpenak deuseztatuz.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f99822a0fcd72ba7a0a8778d75e36f0d/20261001

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1041/2026 epaia, 2026ko irailaren 23koa (Roj: STS 3766/2026).

20/2021 Legearen 2.6 artikuluan aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa lege horrek araututako hirugarren egonkortze-prozesua gainditu ez izanagatik kargua utzi behar izan duten bitarteko funtzionarioei baino ez dagokie. Legea indarrean jarri aurretik deitutako prozesuetan parte hartu zutenak konpentsazio horretatik kanpo geratzen dira, kargu-uztea 20/2021 Legea indarrean jarri ondoren gertatu bazen ere.

Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio Administrazioari, eta 895/2025 eta 1249/2025 epaietan ezarritako doktrina berretsi du. 20/2021 Legearen 2.6 artikuluko konpentsazio ekonomikoa lege horrek berariaz araututako egonkortzeko hirugarren hautaketa-prozesua gainditu ez eta, horren ondorioz, kargutik kendutako bitarteko funtzionarioei baino ez dagokie. Legea indarrean jarri aurretik deitutako egonkortze-prozesuei ez zaie xedapen hori aplikatzen, nahiz eta funtzionarioaren kargu-uztea geroago gertatu. Auzitegiak ez du bidezko jo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari epaitu aurreko arazoa planteatzea, behin-behinekotasunaren gehiegizko erabilerari eta diskriminazioari buruzko alegazioak ez baitira erabakigarriak auzia ebazteko. Funtzionarioaren errekurtsoa ezetsi, instantziako epaia deuseztatu eta eskatutako konpentsazioa ukatzeko erabakia berretsi du. Horrela, araua zer prozesuri eta noiztik aplikatzen zaien zehaztu du: legea indarrean jarri ondoren deitutako prozesuei soilik aplikatzen zaie, aipatutako baldintzetan.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/153f2e206d4530b9a0a8778d75e36f0d/20261001

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1050/2026 epaia, 2026ko irailaren 23koa (Roj: STS 3957/2026).

Estatuko klase pasiboen araubideko pentsioetan, bi gurasoei aldi berean aitortu dakieke amatasunagatiko osagarria, eta biek batera jaso dezakete, 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Biek eskubide hori dutela egiaztatzen badute, ez dago osagarria ukatzeko arrazoirik.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e3d3a5e58d4e1ec4a0a8778d75e36f0d/20261008

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1057/2026 epaia, 2026ko irailaren 24koa (Roj: STS 3943/2026).

Azpiegituraren titularrari administrazio-zehapena ezartzeko, argi eta behar beste frogatu behar da erruz edo doloz jokatu duela. Horretarako ez da nahikoa kaltea gertatu dela egiaztatzea, kolektorea haren titulartasunekoa izatea edo titularrak arrisku naturalen berri aldez aurretik izatea, hala nola ubideko higaduraren berri. Zehaztu behar da titularrak zer prebentzio-neurri hartu gabe utzi zuen eta zergatik zen neurri hori, arrazoiz, kaltea saihesteko egokia.

Auzitegiak arrazoia eman dio errekurtsogileari. Ez da behar beste frogatu zehapena oinarritzeko behar den erruduntasuna: ez da zehaztu titularrak zer neurri hartu behar zituen, ezta neurri horiek kolektorea haustea nola eragotz zezaketen ere. Ubidean higadura-prozesua abian zela eta titularrak egoeraren jarraipena egin eta haren berri eman zuela kontuan hartuta, arrazoizko zalantzak daude. Hortaz, ezin da jo titularrak zabarkeriaz jokatu zuenik. Arau-haustearen elementu subjektiboa egiaztatu ez denez, Auzitegiak deuseztatu egin ditu bai diruzko zehapenak, bai kalteordaina emateko betebeharra.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3eac7ee6058778e9a0a8778d75e36f0d/20261008

- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1082/2026 epaia, 2026ko irailaren 30ekoa (Roj: STS 3962/2026).

Kasazio-intereseko auziari erantzunez, Auzitegi Gorenak adierazi du SPKLren 152.3 artikuluaren arabera Administrazioak kontratazio-prozeduran atzera egin ahal izateko ezinbestekoa dela kontratua prestatzeko arauak edo esleipen-prozedura arautzen dutenak urratu izana eta arau-hauste hori zuzendu ezinekoa izatea. Espedientean justifikatu behar da arrazoi hori badagoela. Horrez gain, 152. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan ezarritako argitalpen- eta jakinarazpen-betekizunak bete behar dira.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/97414c41fdc543e8a0a8778d75e36f0d/20261008

Justizia-auzitegi nagusiak

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ PV 2782/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 302/2026 epaia, 2026ko irailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak apelazio-errekurtsoa ezetsi eta lanpostuaren esleipena baliozkoa dela berretsi du. Errekurtsogileak ez ditu deialdiaren oinarriak aurkaratu errekurtso honetan. Hortaz, oinarriei egozten dizkien arau-hausteei buruzko alegazioek ezin dute errekurtsoa baiesteko oinarri izan. Deialdiaren oinarriak 2019ko maiatzaren 31n argitaratu ziren. Beraz, Poliziaren Legearen 2020ko testu bategina ezin zaio aplikatu hura indarrean jarri aurretik argitaratutako deialdiari. Gainera, eztabaidagai den araua Ertzaintzari aplikatzen zaio, ez udaltzainei (3. oinarri juridikoa). Kalifikazio-epaimahaiko bi kidek udaltzainak biltzen dituen elkarte batean karguak bete izanak ez du, berez, abstenitzeko arrazoirik sortzen, nahiz eta haietako bat 2018tik 2023ra elkarteko presidente izan.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/18dfeb7712a5e1aaa0a8778d75e36f0d/20260908

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ PV 2834/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 375/2026 epaia, 2026ko irailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak agenteak jarritako apelazio-errekurtsoa ezetsi du. Berretsi egin du aurretiazko informazioaldian epez kanpo egindako eginbideak deuseztzat jo zituen epaia. Hala ere, arau-haustea jarraitua zenez, 2021ean zehapen-prozedura formalki hasi zenean ez zen preskripziorik gertatu. Eginbide haiek deusezak izatea ez da nahikoa agenteari egotzitako arau-haustea oinarririk gabe uzteko. Alegazioak horretarako berariaz ezarritako bideetatik kanpo aurkeztu izanak ez zion benetako defentsa-gabeziarik eragin apelatzaileari. Barne Arazoetarako Unitatearen eskumenik eza ere alegatu zuen, baina auzi horrek ez du ondorio praktikorik, espedientea ez baitzen unitate horren jardunean oinarritu. Errekurtsoa ezestea jarduketa guztiak osotasunean baloratzean eta prozeduraren iraungitze-epea zenbatzeko irizpide integratzailea aplikatzean oinarritzen da. Horren bidez, aurreko jurisprudentzia-doktrina aldatu eta irizpide berri bat ezartzen da, aurretiazko informazio-jarduketak ere epe horren zenbaketan sartzen dituena.

Epaiaren alderdirik aipagarriena da aurreko jurisprudentzia-doktrinatik aldentzen dela eta ezartzen duela zehapen-prozedura baten iraungitze-epea zenbatzean aurretiazko eginbideetan edo informazio-jarduketetan emandako denbora ere kontuan hartu behar dela. Horren helburua da Administrazioak prozedura arrazoirik gabe luzatzea saihestea eta segurtasun juridikoa babestuko duen ekitatean oinarritutako interpretazioa bermatzea.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9ca992977cf89144a0a8778d75e36f0d/20260916

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ PV 2858/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 373/2026 epaia, 2026ko irailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 32. artikuluaren arabera, Udalari egotz dakiokeen ez-betetzeak, hau da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) horretarako ezarritako epe luzean egokitu ez izanak, benetako ezintasuna eragin zion merkataritza-sozietateari bere finketan eraikinak sustatzeko. Kausalitate-lotura dago ez-betetze horren eta ekonomikoki balora daitekeen kaltearen artean. Kalte hori zenbatzea zaila bada ere, neurrizko estimazio bat egin da, inbertsioaren urteko % 0,5ekoa, ulertuta plana egokitu ez izanak hirigintza-garapena mugatzen duela, aplikatu beharreko legeriaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziaren arabera.

Udalaren ondare-erantzukizuna aitortzen da, HAPO ezarritako epean egokitu ez izanagatik, eta hirigintza-garapenerako aukera galtzearen ondoriozko kalte ekonomikoa dagoela onartzen da. Aurkaratutako epaia berresten da, jurisprudentzia-doktrinan aldaketarik ezarri gabe.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7cc0f580928a0c61a0a8778d75e36f0d/20260917

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ PV 2871/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 303/2026 epaia, 2026ko irailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Praktiketako funtzionario batek hautaketa-prozesu bereko gainerako izangaiek baino geroago amaitu zuen prozesua, aitatasun-baimena hartu zuelako. Ondorioz, geroago izendatu zuten karrerako funtzionario. Izendapena aurkaratu zuen, antzinatasuna eta eskubide ekonomikoak gainerako izangaiak izendatu zituzten egunetik aitor ziezazkioten.

Salak apelazio-errekurtsoa ezetsi eta berretsi du funtzionarioari atzeraeraginez aitortu behar zaizkiola gainerakoen antzinatasun eta eskubide ekonomiko berak, haien izendapen-datatik aurrera. Erabakiak aitatasunagatiko diskriminazioaren aurkako doktrina berresten du.

Oinarri ditu Espainiako Konstituzioaren 14. eta 23.2 artikuluak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 1/2023 Legegintzako Dekretua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zein Konstituzio Auzitegiak emandako interpretazioa. Hautaketa-prozesuetan tratu-berdintasuna bermatu behar da, eta familia-bizitza bateragarri egiteko baimena baliatzeak ezin ditu eskubide profesionalak murriztu.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e88f5cc1d942d2b7a0a8778d75e36f0d/20260918

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ AS 2203/2026) Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 720/2026 epaia, 2026ko irailaren 3koa.

Langile batek Asturiasko Printzerriko Osasun Zerbitzuko erizain-lanpostuak egonkortzeko hautaketa-prozesuan merezimenduen balorazioa argitaratu zuen ebazpenaren aurka jo zuen. Izan ere, ez zizkioten aitortu Erresuma Batuko osasun-sistema publiko nazionalean lortutako lan-esperientziari zegozkion puntuak.

Auzitegiak erabaki du egiaztatutako esperientzia hori aitortu eta baloratu behar dela hautaketa-prozesuko puntuazioa kalkulatzean. Horrenbestez, aurkaratutako administrazio-ebazpena deuseztatu eta jarduketak atzera eramateko agindu du, balorazioa zuzen dadin.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia finkatua aplikatu du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-86/21 auzian emandako epaian oinarrituta. Jurisprudentzia horren arabera, ezin zaio lan-esperientziari tratu okerragorik eman beste estatu kide batean lortu izanagatik. Kasu honetan, aurkeztutako agiriek behar bezala egiaztatzen dute langileak atzerriko ospitale publikoetan zerbitzuak eman zituela. Esperientzia hori aitortzeak eragozten du merezimenduak baloratzeko moduak langileak atzera botatzea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 45. artikuluak aitortzen dien zirkulazio askerako eskubidea baliatzeko orduan.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c42f6ea0339095d7a0a8778d75e36f0d/20260914

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ CV 3415/2026) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 539/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Auzitegiak apelazio-errekurtsoa baietsi du, eta ez ditu onartu erregaiaren prezio-igoeran oinarritutako bi eskaerak: kontratua aldatzea eta haren oreka ekonomikoa berrezartzea. Araudiak zehazten du zer egoera jo daitezkeen ezinbesteko kasutzat. Erregaiaren garestitzea aurreikusi ezina eta kontratistak bere gain hartutako arriskutik kanpokoa izan arren, ez da legez ezarritako ezinbesteko kasuetako bat. Indarreko araudiak eta kontratuaren baldintzek ere ez dute prezioak arrazoi horrengatik berrikusteko biderik ematen.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1fd718a7dcbd39f4a0a8778d75e36f0d/20260915

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: STSJ CV 3432/2026) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 540/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Salak arrazoia eman dio enpresa demandatzaileari. Kontratua formalki amaituta egon arren, Administrazioak zerbitzua ematen jarraitzera behartu zuen enpresa. Nahitaezko luzapen horri, beraz, luzapen-aldietarako kontratuan ezarritako prezioak berrikusteko klausula aplikatu behar zaio. Administrazioaren atzerapenagatik luzatu zenez zerbitzua hasierako epetik harago, prezioa kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera eguneratzea dagokio. Salak baztertu egin du Administrazioaren eragozpena: kontratuaren hasierako epea amaitu izanak ez du prezioa berrikustea eragozten, kontratuak berak luzapenaldirako aurreikusitakoa eta aldi horretan zerbitzua benetan eman zela kontuan hartuta. Salak osorik baietsi du errekurtsoa, eta administrazio-isiltasunez gertatutako ezespena deuseztatu du. Enpresari 2024ko maiatzetik 2025eko apirilera bitarteko prezioak berrikusteko eskubidea aitortu dio, zenbateko eguneratuak zehaztu ditu eta Administrazioari bi hilabeteko epean ordaintzeko agindu dio.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/358c410d4df188f8a0a8778d75e36f0d/20260915

- (STSJ CV 3435:2026) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 542/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Berandutze-interesak kalkulatzeko, faktura benetan aurkeztu den eguna hartzen da ordainketa-epearen abiapuntutzat. Ordaintzeko gehieneko epea 30 egunekoa da, salbu eta alderdiek, arrazoi justifikatuak direla medio, berariaz adostu badute epe hori luzatzea, gehienez ere 60 egunera arte. Interesak kontratistak zor zaion zenbatekoa benetan jasotzen duen egunera arte sortzen dira. Banku-transferentziaz ordainduz gero, dirua hartzekodunaren kontuan sartzen den eguna da azken eguna. Auzitegiak errekurtsoa baietsi eta interesak eta auzi-kostuak kobratzeko eskubidea aitortu du.

Interpretazio horren oinarri dira 9/2017 Legearen 198. artikulua eta 3/2004 Legearen 4. artikulua, 2011/7/EB Zuzentarauarekin bat; zuzentarau horrek ordainketa-epea 30 egunera mugatzen du, salbu eta behar bezala justifikatutako akordio baten bidez gehienez 60 egunera arte luzatzen bada. Halaber, Auzitegi Gorenaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren berriki ezarritako doktrinari jarraitzen dio: hartzekodunaren kontuan dirua sartutakoan uzten diote berandutze-interesek sortzeari. Irizpide hori bat dator Administrazioarekiko merkataritza-eragiketetan ordainketa-berandutzei aurre egiteko helburuarekin.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1a6c7f5ae02b059ca0a8778d75e36f0d/20260915

- (STSJ CV 3437:2026) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 535/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Udala kontratua luzatzeko hartu zuen erabakia legez kontrakoa zen: ez zegoen ez alderdien arteko berariazko akordiorik, ez lege-gaikuntzarik, kontratua kontratuan bertan eta legean ezarritako gehieneko epetik harago luzatzeko. Enpresak baliozko kontratu-estaldurarik gabe eman zuen zerbitzua aldi horretan, eta horrek eragindako kalte-galerengatik ordaina jasotzeko eskubidea du. Kalte-ordaina kalkulatzeko, aldi horretako diru-sarreren eta kostuen arteko aldea hartzen da oinarri. Horri % 6ko industria-etekin arrazoizkoa eta dagozkion legezko interesak gehitzen zaizkio. Auzitegi Gorenaren eta Justizia Auzitegi Nagusiaren doktrina berresten eta aplikatzen da. Doktrina horrek debekatu egiten du alderdien arteko akordiorik gabe kontratuak nahitaez eta mugarik gabe luzatzea, eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ezartzen du, oreka ekonomikoa bermatzeko eta bidegabeko aberastea saihesteko. Epaiak errekurtsoa baiesten du, Administrazioaren errekerimenduak eta alde bakarrez ezarritako luzapenak aplikatu beharreko esparru juridikoa urratu zutelako. Halaber, epaiak administrazio-kontratuak bidegabe luzatzeari buruz finkatutako jurisprudentzia-doktrinarekin du zerikusia.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a4a69ed47f16fb1ca0a8778d75e36f0d/20260915

- (STSJ AR 1312/2026) Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 318/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Auzitegiak egiaztatu du errekurtsogileak benetan egiten zuen lana ofizialki esleitua zuen kategoriari baino goragoko bati zegokiola. Hortaz, kategoria horretako eginkizunak betetzeagatik dagozkion soldata-aldeak jasotzeko eskubidea aitortu dio, baita administrazio-erreklamazioa aurkeztu zuenetik sortutako legezko interesak kobratzekoa ere. Ez da ikusten Administrazioak adierazitako amore-ematearekin ados egotea eragozten duen arrazoi juridikorik. Horrenbestez, epaiak osorik baiesten ditu errekurtsogilearen uziak. Errekurtsogilearen uzi guztiak baietsi ditu, aurkaratutako administrazio-egintza deuseztzat jo du eta soldata-aldeak eta legezko interesak ordaintzeko agindu du. Ez du auzi-kosturik ezarri.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ab72158fce1f9109a0a8778d75e36f0d/20260916

- Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 547/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa (STSJ CV 3451:2026).

Auzitegiak arrazoia eman dio sozietate errekurtsogileari. Zuzen jo du legezko berandutze-interesen likidazioa, araudian ezarritako ordainketa-epea oinarri hartuta egin delako. Auzitegi Gorenaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziari jarraituz, zorrotz interpretatu behar dira bai ordaintzeko gehieneko epea, bai interesak zenbatzen hasteko unea. Era berean, 3/2004 Legearen arabera kobrantza-kostuak ordaintzeko eskubidea aitortzen da, nahiz eta Auzitegiak interpretazio-desadostasun batzuk adierazi, azken ondorioari eragiten ez diotenak. Halaber, Administrazioa prozesuko kostuak ordaintzera kondenatzen da.

Epaiak nabarmentzen du kontratu publikoetan ordainketak egiteko gehieneko epeak modu murriztailean eta zehatzean interpretatu behar direla, eta azkenaldiko jurisprudentziarekin bat egiten du. Jurisprudentzia horrek baztertu egiten du 30 egunetik gorako ordainketa-epeak aplikatzea, salbu eta horretarako justifikazio objektibo eta espresua dagoenean. Era berean, ordaindu gabeko faktura bakoitzagatik kobrantza-kostuak banan-banan erreklamatzeko eskubidea argitzen du, Espainiako araudia berankortasunari buruzko Europako Zuzentarauarekin bateratuz.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d32ac464515c434ba0a8778d75e36f0d/20260916

- (STSJ AR 1313/2026) Aragoiko Auzitegi Nagusiaren 311/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Langileak zerbitzuen koordinatzailearen eginkizunak benetan eta jarraian bete zituenez, lanpostu horri dagozkion ordainsari osagarriak jasotzeko eskubidea aitortu dio Auzitegiak. Horrenbestez, eskaera ukatu zion administrazio-ebazpena deuseztatu du. Izendapen formalik ezak ez du eskubide hori aitortzea eragozten.

Auzitegiak 1484/1987 Errege Dekretuaren 9. artikulua, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia finkatua eta 17/2012 Legearen 26.1.D) artikuluaren eta aurrekontu-arauen interpretazioa hartu

ditu oinarri. Langileak, Administrazioaren adostasunarekin, goragoko lanpostu bateko eginkizun guztiak benetan eta jarraian betetzen baditu, ordainsari-aldeak kobratzeko eskubidea du. Erabakigarriak dira ordainsari-berdintasunaren printzipioa eta langileak benetan egin duen lana, izendapen formalik izan ez arren.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4f1f5cb37fd239a0a0a8778d75e36f0d/20260917

- (STSJ AR 1315/2026) Aragoiko Auzitegi Nagusiaren 319/2026 epaia, 2026ko irailaren 8koa.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzako langile batek eskatu zuen bere lanpostuari 27. mailako destino-osagarria eta hari zegokion berariazko osagarria aitortzeko, antzeko beste lanpostu batzuei bezala. Eginkizun eta erantzukizun berak zituela alegatu zuen. Administrazioak eskaera ukatu zion, eta Auzitegiak aztertu du ea maila desberdinak esleitzeko arrazoirik zegoen.

Auzitegiak erabaki du lanpostuari 27. mailako destino-osagarria eta dagokion berariazko osagarria aitortu behar zaizkiola, langilea lanpostuaz jabetu zen egunetik aurrerako ondorio ekonomikoekin. Administrazioak, beraz, dagozkion ordainsari-aldeak ordaindu behar dizkio. Epaiak osagarrien izaera objektiboari buruzko doktrina finkatua berresten du: osagarriak lanpostuaren ezaugarrien arabera zehazten dira, lanpostua betetzen duen funtzionarioa nor den gorabehera.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3c888d94ea8dfda0a0a8778d75e36f0d/20260917

- Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 553/2026 epaia, 2026ko irailaren 9koa (STSJ CV 3460:2026).

Auzitegiak berretsi egin du dirulaguntzaren onuradun zen udalaren errekurtsoa baietsi zuen lehen auzialdiko epaia. Dirulaguntza eman zuen administrazioak ez zion udalari nahitaezko errekerimendua egin, justifikazioa Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 70.3 artikuluan ezarritako epe gehigarri luzaezinean aurkez zezan. Izapide hori egin gabe uzteak prozeduraren funtsezko berme bat urratzen du, eta, ondorioz, ezin zaio udalari dirulaguntza kobratzeko eskubidea kendu. Aitortzen da Udalak ohiko epea igaro ondoren aurkeztu zuela justifikazioa, baina horrek ez du esan nahi funtsezko ez-betetze materialik egon denik, justifikazioa aurkezteko atzerapena baino ez baita izan. Auzitegiak berretsi egiten du prozedura-bermeen garrantzia, berme horien arabera, ez-betetze formalak zuzentzeko aukera eman behar baita dirulaguntza errebokatu eta jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharra ezarri aurretik. Horrenbestez, dirulaguntza eman zuen Administrazioak jarritako apelazio-errekurtsoa ezetsi egiten da, eta hasierako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baietsi zuen epaia berresten da. Ez da jurisprudentzia-doktrinan aldaketarik ezartzen; aitzitik, dirulaguntzak justifikatzeko araubideari eta dirulaguntzen prozedurako bermeei buruz dagoen jurisprudentziaren interpretazioa modu koherentean aplikatu eta berresten da.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0f23f95ef7bfdc70a0a8778d75e36f0d/20260916

- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 241/2026 epaia, 2026ko irailaren 9koa (STSJ NA 519:2026).

Auzitegiak arrazoia eman dio foru-parlamentariari. Konstituzioaren 23.2 artikuluak bermatzen dio kargu publikoan jarduteko behar duen informazioa berdintasun-baldintzetan eskuratzeko eskubidea, bereziki Gobernua kontrolatzeko eginkizuna betetzeko. Eskatutako alegazioak Nafarroako Gobernuaren esku daude, eta ezin dira amaitu gabeko agiritzat edo prestaketa-agiritzat jo. Hortaz, parlamentariari eman behar zaizkio. Administrazioak informazioa ukatzeko emandako arrazoiek ez dute behar besteko oinarri juridikorik, eta ezezkoak parte-hartze politikorako oinarrizko eskubidea urratzen du. Auzitegiak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baietsi, aurkaratutako ebazpena deuseztatu eta eskatutako informazioa jasotzeko eskubidea aitortu dio demandatzaileari. Auzi-kostuak Administrazioari ezarri dizkio. Epaiak aurreko doktrinari eutsi dio, parte-hartze politikorako eskubidea eta parlamentariak bere karguari dagozkion eginkizunak betetzeko duen eskubidea (ius in officium) berretsiz eta kasuari aplikatuz.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/842cde0c108b6cfba0a8778d75e36f0d/20260916

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1963/2026 epaia, 2026ko irailaren 9koa (STSJ V 2896/2026).

Aipatutako jokabideak lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak urratu izan ditzake. Hori bakarrik, ordea, ez da nahikoa langilearen osotasun fisiko eta pertsonalerako eskubidea urratu dela ondorioztatzeko.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/35113b6d9fe238b1a0a8778d75e36f0d/20260921

- (STSJ CL 3486/2026) Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 857/2026 Epaia, 2026ko irailaren 14koa.

Auzitegiak apelazio-errekurtsoak ezetsi ditu. Kontratuak amaituta zeuden eta Administrazioak prestazioak hartuak zituen. Egoera horretan, ezin da kontratuak aldatzeko eskaera onartu zerbitzuak eta ordutegiak zabaldu zirelako: bere garaian ez zen zabalkuntza horren aurka egin, eta kontratuak eragozpenik jarri gabe gauzatu ziren. Gainera, prezioa oroharreko zenbateko batean finkatu zen, eta kontratuak indarrean egon ziren bitartean bi aldiz berrikusi zen.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f7fde1d572479f0ba0a8778d75e36f0d/20260929

- (STSJ CL 3473/2026) Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 198/2026 Epaia, 2026ko irailaren 14koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak partzialki baiesten du aurkeztutako apelazio-errekurtsoa. Izan ere, erorikoa gertatu zenean, ikuspen-baldintzak onak ziren oraindik, eta ezbeharra errekurtsogilearen etxeko atearen aurrean gertatu zen. Egia da, halaber, herritarrek bazekitela bidea egoera txarrean zegoela, bertan zegoen desnibelaren ondorioz. Hala ere, inguruabar hori ezin da hartu

udal-administrazioaren erantzukizuna baztertzeko arrazoitzat, Administrazioak bide publikoak erabiltzeko egoera egokian mantentzeko betebeharra baitu. Kasu honetan, bidearen egoera ez zen gutxieneko baldintza egokietara ere iristen, aipatutako desnibela zela eta. Horrenbestez, erruen konkurrentzia % 50ekoa dela jotzea bidezkoa dela ondorioztatzen da.

Epaiak azpimarratzen du Administrazioaren ondare-erantzukizuna zehazteko orduan garrantzitsua dela erruen konkurrentzia haztatzea, baldin eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduan akats bat egon dela egiaztatzeaz gain, kaltetuak ere kaltea eragiten parte hartu duela frogatzen bada. Izan ere, kaltetuaren parte-hartze horrek, kausalitate-lotura hautsi ez arren, kalte-ordainaren zenbatekoa murriztea ekar dezake. Era berean, epaiak argi uzten du kalte-ordainaren zenbatekoa hasierako erreklamazioa aurkeztu zenean finkatuta zeuden egitate eta inguruabarren arabera zehaztu behar dela. Hortaz, ezin dira gerora izandako egitateak gehitu kalte-ordainaren zenbatekoa handitzeko, behar bezala justifikatutako egitate berriak ez badira.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b7fe0365d75477a0a0a8778d75e36f0d/20260930

- Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 781/2026 Epaia, 2026ko irailaren 16koa (STSJ CAT 7145/2026).

Auzitegiak ezetsi egiten du emakida-enpresak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, iritzita kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko klausulak ez duela automatikoki kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ematen gutxieneko diru-sarrera bolumen jakin bat lortu ez izanagatik. Izan ere, horretarako, frogatu behar da, halaber, desoreka saihesteko arrazoizko neurriak hartu direla eta desoreka hori Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorio dela. Alderdi demandatzaileak, ordea, ez zuen hori egiaztatu. Aurkeztutako dokumentu-frogak eta lekuko-frogak ez dute indargabetzen eskatutako konpentsazioa ukatzeko Administrazioak egindako baloraziora. Era berean, Auzitegiak ez du onartzen klausularen interpretazio bihurritua, emakida-kontratuari berez dagokion arrisku eta menturaren printzipioa indargabetu nahi duena.

Epaiak nabarmentzen du kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko klausulak zorrotz eta dagokien testuinguruan interpretatzearen garrantzia. Ildo horretan, argi uzten du diru-sarrerak ezarritako gutxieneko atalasearen azpitik geratze hutsak ez duela konpentsazioa jasotzeko eskubidea bermatzen. Horretarako, ezinbestekoa da egiaztatzea emakidadunak desoreka saihesteko arrazoizko neurriak hartu dituela eta desoreka hori Administrazioari egotz dakizkiokeen ezohiko arrazoien ondorio dela. Horrela, kontratazio publikoaren funtsezko printzipioetako bat den arrisku eta menturaren printzipioa bermatzen da.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e8e551b7a0fa598aa0a8778d75e36f0d/20260928

- (STSJ BAL 897/2026) Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiaren 506/2026 Epaia, 2026ko irailaren 16koa.

Enpresa kontratistari sei obra publiko adjudikatu zizkion Ciutadellako Udalak, eta enpresak behin betiko bermeak eratu zituen banku-abalen bidez. Obren behin betiko harrera egin ondoren, abalak itzultzeko eskatu zuen, bai eta 16.245,29 euro ordaintzeko ere, abalak itzultzeko atzerapenaren ondorioz haiek mantentzeagatik sortutako gastuengatik. Administrazioak berariaz erabaki zuen abalak itzultzea, baina ez zuen ebazpenik eman mantentze-gastuak erreklamatzeko eskaerari buruz. Horren ondorioz, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsitzat jo zen, eta ustezko ezespen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen.

Epaiak argitzen du administrazio-isiltasunaren ondoriozko ustezko ezespena ez dela berariazko ebazpen irmo baten parekoa, eta Administrazioak berariaz ebatzi behar duela behin betiko administrazio-egintza bat egon dadin, haren aurka egiteko aukera emango duena. Horrenbestez, interesdunak edozein unetan aurkara dezake administrazio-isiltasunaren bidezko ezespena, iraungitze-epe zehatzen eraginpean egon gabe. Gainera, epaiak ezartzen du Administrazioak kalte-ordaina eman behar duela behin betiko bermeak behar ez bezala mantentzearen ondorioz sortutako gastuengatik.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2e78156b17bbbc77a0a8778d75e36f0d/20260929

- (STSJ PV 2997/2026) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 316/2026 epaia, 2026ko irailaren 16koa.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzea arautzen duen 19/2024 Dekretuaren aurka. Errekurtsoan, batez ere, dekretuarekin batera aurkeztutako memoria ekonomikoaren baliozkotasuna jarri zen zalantzan, dekretuaren eragin ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketarik ez zegoelako edo azterketa hori nahikoa ez zelako. Prozeduran, arlo horretan eskumena duen organo independenteak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, txosten kritiko bat egin zuen, eta bertan adierazi zuen estimazio ekonomikoa osatu gabe zegoela eta ez zela behar bezain zehatza. Gabezia hori bereziki garrantzitsua da, dekretuak erakunde publiko eta langile-talde ugariri eragin diezaiekeelako eta horiek dekretuan ezarritakoa aplikatu beharko dutelako. Beste txosten batzuk aldekoak izan arren, agerian geratu zen espedientean barne-kontraesanak zeudela eta proiektuaren funtsezko alderdi batzuen inguruko motibazioa ez zela nahikoa.

Salak arrazoia eman dio errekurtsogileari, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baietsi du, egiaztatu baitu proiektuaren memoria ekonomikoak, dekretua onartzeko funtsezko dokumentua denak, gabezia nabarmenak dituela. Gabezia horiek eragotzi egiten dute araudiaren ondorio ekonomiko eta finantzarioak behar bezala ezagutzea eta justifikatzea, eta, horrenbestez, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak urratzen dira. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten tekniko independentearen garrantzia azpimarratzen da. Izan ere, txosten horren balorazioa behar besteko motibaziorik ez duten beste txosten batzuen gainetik jartzen da, haren izaera, independentzia eta oinarri teknikoa direla eta. Prozedurari hasiera emateko aginduaren, beste txosten batzuen eta memoria ekonomikoaren arteko kontraesanek areagotu egiten dute espedientearen koherentzia- eta motibazio-falta. Ondorioz, aurkaratutako

dekretua deuseztatzen da arrazoi horrengatik, eta ez da prozesuko kosturik ezartzen, auziaren konplexutasun juridikoa dela eta.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0ced1a11e1816650a0a8778d75e36f0d/20260929

- (STSJ BAL 891/2026) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 520/2026 epaia, 2026ko irailaren 17koa.

Auzitegiak arrazoia eman dio errekurtsogileari, eta auzialdiko epaia berresten du. Epai horrek errekurtsoa baietsi zuen, eta ezarritako zehapenaren eta ondoren egindako premiamendu-jarduketa guztien erabateko deuseztasuna deklaratu zuen. Erabakia honako honetan oinarritzen da: jakinarazpenetan izandako akatsek benetako defentsa-gabezia eragin zioten errekurtsogileari, zehapen-prozeduraren berri izatea eragotzi baitzioten. Horren ondorioz, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aitortutako defentsarako eskubidea urratu zitzaion. Era berean, Zerga Agentziaren legitimazio pasiboa aitortzen da, zehapen-egintza deusezaren ondoriozko enbargoa gauzatu baitzuen. Hortaz, egokitzat jotzen da Zerga Agentzia prozesuan alderdi demandatu gisa sartzea. Auzitegiak baztertu egiten ditu apelazio-errekurtsoak aurkeztu dituzten bi administrazioen argudioak, bai lehentasunezko prozeduraren izaerari buruzkoak, bai formalki betetzat jotako jakinarazpenen baldintzei buruzkoak. Azkenik, oinarrizko eskubideak babesteko prozedura berezia erabiltzea egokia dela berresten du, jakinarazpenetan izandako irregulartasunak oinarrizko eskubide bati zuzenean eragin baitzion.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cd8d14d1b4f64926a0a8778d75e36f0d/20260929

- Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 780/2026 Epaia, 2026ko irailaren 16koa (STSJ CAT 7142/2026).

Matadeperako Udalak hondakinak atez ate biltzeko sistema berri bat ezarri zuen. Sistema horrek erabiltzaileak txip baten bidez digitalki identifikatzea aurreikusten du, eta kudeaketa tratamenduaren eragile edo azpieragile diren enpresen bidez egiten da. Herritar batek bere datu pertsonalen eta familiakoen datu pertsonalen tratamenduaren aurka egin zuen, Konstituzioan aitortutako eskubideak eta datuen babesari buruzko araudia urratzen zirela argudiatuta. Aurkaratzea aurkakotasun hori ezetsi zuen dekretuan oinarritu zen, eta ez zen errekurtsoaren xede izan geroago onartutako tasa edo ordenantza fiskala aurkaratzea.

Auzitegiak aitortzen du aurkeztutako aurkaratzea hondakinak gaika biltzeko zerbitzu publikoa ezartzearekin lotutako datu pertsonalen tratamenduaren aurkakotasunera mugatzen dela. Auzitegiak ondorioztatzen du zerbitzua emateko beharrezkoa den datu pertsonalen tratamenduak, helbidea erabiltzea eta datuak tratamenduaren eragileei lagatzea barne, aplikatu beharreko Europako araudian ezarritako oinarri juridikoa duela. Gainera, tratamendu horrek interes publiko legitimo bati erantzuten dio, eta interes horrek justifikatzen ditu tratamenduaren zilegitasuna eta proportzionaltasuna. Ez dago froga nahikorik intimitaterako eskubidea edo datu pertsonalak babesteko legeria modu zehatz eta eraginkorrean urratu direla egiaztatzeko. Bestalde, tasari

edo ordenantza fiskalari buruzko alegazioek prozesuaren xedea gainditzen dute, eta beste administrazio-bide batzuetatik izapidetu behar dira.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b5f4a8bfc1eb2a4aa0a8778d75e36f0d/20260928

- (STSJ CAT 7177/2026) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 706/2026 epaia, 2026ko irailaren 21ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezin dela izapidetzeko onartu, epez kanpo aurkeztu zelako, hau da, legeak ezarritako bi hilabeteko epea igaro ondoren. Izan ere, egiaztatuta dago kanporatze-ebazpen administratiboaren jakinarazpen elektronikoa 2022ko urriaren 1ean onartu zela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa 2022ko abenduaren 5ean aurkeztu zela. Hortaz, ezarritako bi hilabeteko epea igarota zegoen. Urriaren 1a larunbata eta egun baliogabea bazen ere, eta 2022ko urriaren 3a, astelehena, epea zenbatzen hasteko eguna (dies a quo) izango bazen ere, bi hilabeteko epea zenbatzeko azken eguna (dies ad quem) 2022ko abenduaren 1a, osteguna, zen. Gainera, errekurtso-idazkia hurrengo eguneko, hau da, 2022ko abenduaren 2ko, ostiraleko, 15:00ak arte aurkez zitekeen.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/139dbfad6aa5f05ba0a8778d75e36f0d/20260929

- (STSJ BAL 921/2026) Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiaren 523/2026 Epaia, 2026ko irailaren 21ekoa.

Auzitegiak arrazoia eman zion alderdi kontratistari, iritzita Administrazioak, dokumentazioa zuzentzeko izapidea egiteko aukera eman ondoren, jarduerarik ez zuela izan, ez baitzuen erreklamazioa berariaz ebatzi ezarritako epean. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 199. artikuluaren arabera, horrek berandutze-presuntzioa dakar, eta organo judiziala berehalako ordainketa agintzeko kautelazko neurria hartzera behartzen du. Auzitegiak adierazi zuen Administrazioak erantzun zehatzik eman ez izanak ez duela indargabetzen ordainketari buruzko legezko presuntzioa. Izan ere, Administrazioari dagokio egiaztatzea ordainketa egiteko baldintzak ez direla betetzen edo erreklamatutako zenbatekoa ez dela zor, baina kasu honetan ez zuen halakorik egiaztatu.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3aea9721aebbe348a0a8778d75e36f0d/20261008

- (STSJ CL 3573/2026) Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 891/2026 Epaia, 2026ko irailaren 21ekoa.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak deitutako lehiaketa bateratuaren ebazpenaren bidez, Leongo Udaleko kontu-hartzaileordearen lanpostua adjudikatu zitzaion errekurtsogileari, uko egiteko aukerarik gabe. Ondoren, Udalaren Osoko Bilkurak lanpostu hori Lanpostuen Ze-

rrendatik (LPZ) kentzea erabaki zuen. Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabaki hori aurkaratu zuen, eta auzia ebazpen judizialaren zain dago. Errekurtsogileak lanpostuaz jabetzeko eskatu zuen, baina Udalak berariaz ukatu zion eskaera, lanpostua amortizatuta zegoenez «ezintasun materiala» zegoela argudiatuta. Horren ondorioz, administrazio-jarduerarik ezaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen.

Auzitegiak arrazoia eman dio errekurtsogileari, eta ondorioztatu du, Udalak lanpostua kentzeko erabakia hartu bazuen ere, adjudikaziodunari lanpostuaz jabetzeko aukera eman behar diola, lehiaketaren ebazpenean ezarritakoaren arabera. Izan ere, ebazpen horrek baliozkotasun- eta eraginkortasun-presuntzioa du. Epaiak azpimarratzen du lanpostua LPZtik kentzeak ezin duela atzeraeraginezko ondoriorik izan abian dagoen prozeduraren kaltetan, ezta segurtasun juridikoa eta lanpostua adjudikatu zaion funtzionarioaren estatutu-eskubideak urratu ere.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cef61f9c496f68b5a0a8778d75e36f0d/20261008

- (STSJ CV 3617/2026) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 578/2026 Epaia, 2026ko irailaren 22koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, eta kontratistak Administrazioak alde bakarrez ezarritako nahitaezko luzapenaren ondoriozko kalte ekonomiko-engatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duela aitortu du. Izan ere, kontratuan edo legean oinarririk izan gabe luzapenak alde bakarrez ezartzeak konpentsatu beharreko desoreka ekonomikoa eragiten du, eta konpentsazio hori zerbitzuaren benetako prezioaren arabera kalkulatu behar da. Horrela, interes publikoaren babesa eta kontratazio publikoaren lehia- eta gardentasun-printzipioak bateratzen dira, eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea bermatzen da, luzapenerako alderdien arteko adostasunik edo kontratu-aurreikuspenik ez dagoenean.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9b7169f7ef199d5aa0a8778d75e36f0d/20260929

- (STSJ CAT 7541/2026) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 716/2026 Epaia, 2026ko irailaren 28koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, eta apelazio-errekurtsoa aurkeztu duen pertsonari aitortu dio udalak baimena eman diezaion baserria udalaren ur-sarearekin etxeko erabilerarako lotzeko hartunea egitearen bideragarritasunari, lan horien gastuak errekurtsogileak berak ordaindu beharko dituela ezarrita. Izan ere, egia bada ere lurzorua landa-lurzorua dela, urbanizaezina, eta udalek, nolanahi ere, etxebizitzei edateko ura hornitzeko zerbitzua eman behar dutela —hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruari dagokion zerbitzutzat jo daitekeena—, egia da, halaber, errekurtsogilearen baserria erabilera turistikoko etxebizitza dela eta autonomia-erkidegoko administrazioak erabilera horretarako baimena eman zuela. Baserri hori udalaren baserrien katalogoan jasota dago, etxebizitza-erabilerarekin.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0f5b85fc0f42033ea0a8778d75e36f0d/20261007

- (STSJ PV 2078/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1344/2026 Epaia, 2026ko ekainaren 5ekoa.

Auzitegiak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EBJA) eta Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentzian oinarritzen du bere erabakia. Jurisprudentzia horrek aitortzen du langile finkoaren izaera eskuratzeko eskubidea, lanpostu finko bat betetzeko hautaketa-prozesu publiko bat gainditu arren lanposturik adjudikatu ez zaien langileen kasuan, Espainiako Konstituzioaren 23. eta 103.3 artikuluetan ezarritakoa betez eta berdintasun-printzipioa errespetatuz (Konstituzioaren 14. eta 24. artikuluak). Horrela, antzeko egoeran egonik hautaketa-prozesu horiek gainditu dituzten langileen arteko diskriminazioa saihestu nahi da, bai eta abusuzko eta gehiegi luzatutako kontratazioen aurrean babes eraginkorra bermatu ere.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a7022baea54801c4a0a8778d75e36f0d/20260629

- (STSJ PV 2502/2026) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1788/2026 Epaia, 2026ko uztailaren 16koa.

Erabakia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (EPOE) 70. artikuluaren interpretazioan eta Auzitegi Gorenaren zein Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia-doktrinan oinarritzen da. Doktrina hori aldi baterako kontratazioan gertatzen diren gehiegikeriak prebenitzeari eta enplegu publikora iristeko berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak bermatzeari buruzkoa da. Era berean, abusuzko behin-behinekotasunaren ondorioz sortutako kalteengatik konpentsazio osoa eta proportzionatua bermatzen duten jurisprudentzia-irizpideen arabera kalte-ordainak zehaztea du oinarri.

https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bc439861ba3bf69aa0a8778d75e36f0d/20260805

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

- Alkateak EBko agintariekin bildu dira Bruselan, energia eskuragarria eta klima-aldaketaren aurreko erresilientzia sustatzeko. Eskualdeetako Europako Lantaldeko hainbat kidek parte hartu zuten urriaren 15ean Bruselan egin zen EBko Alkateen Itunaren aurtengo ekitaldian. Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen ondoren antolatutako ekitaldiak agerian utzi zuen EBren eta tokiko agintarien arteko lankidetza ezinbestekoa dela Europako herritarrak prezioen gorabeheretatik eta klima-arriskuetatik babesteko.

https://www.cor.europa.eu/es/noticias/los-alcaldes-se-reunen-con-los-dirigentes-de-la-ue-en-bruselas-para-promover-una-energia-asequible-y

- Eskualdeetako Europako Lantaldeak eta Europako Parlamentuak lankidetza estuagoa izateari buruz eztabaidatu dute, EBren aurrekontuari eta eskualdeen zereginari dagokienez. Urriaren 12an, Eskualdeetako Europako Lantaldeko (EL) Presidenteen Konferentziak iritzi-trukea egin

zuen Younous Omarjeerekin, Europako Parlamentuko presidenteorde eta ELrekiko harremanen arduradunarekin. Eztabaidaren ardatza bi erakundeen arteko lankidetza indartzea izan zen, bereziki EBren hurrengo aurrekontuari, eskualdeen eta hirien zereginari eta EBko legeriak lurraldeetan duen eraginari dagokienez.

https://www.cor.europa.eu/es/noticias/el-cdr-y-el-parlamento-europeo-debaten-una-cooperacion-mas-estrecha-sobre-el-presupuesto-de-la-ue-y

- Europako Parlamentuko diputatuek eta eskualdeek tokiko parte-hartze handiagoa aldarrikatu dute etorkizuneko kohesio-politikan. 2026ko REGI-COTER bileran, Europako Parlamentuko diputatuek eta eskualdeetako ordezkariek nabarmendu zuten hiriek eta eskualdeek funtsezko zeregina izan behar dutela EBren hurrengo aurrekonturako lehentasunak zehazteko eta horiek betetzeko.

https://www.cor.europa.eu/es/noticias/los-eurodiputados-y-las-regiones-abogan-por-una-mayor-participacion-local-en-la-futura-politica-de

- Eskualdeek eta hiriek inbertsioak eskatu dituzte ibilgailu elektrikoetarako trantsizioa bultzatzeko. Europako automobilgintza eraldaketa sakona bizitzen ari da, eskualdeek eta hiriek hainbat erronkari aurre egin behar dieten honetan: deskarbonizazioari, mundu mailako lehiari, aldaketa teknologikoari eta hornidura-kateen eraldaketari. Testuinguru horretan, Eskualdeetako Europako Lantaldeko (EL) kideek automobilgintzaren sektorearen etorkizunari buruz eztabaidatu dute Automobilgintza duten Eskualdeen Aliantzako (ARA) presidentearekin, eta EBren automobilgintzaren arloko neurri-sortari buruzko irizpena onartu dute.

https://www.cor.europa.eu/es/noticias/las-regiones-y-ciudades-piden-inversiones-para-apoyar-la-transicion-los-vehiculos-electricos

ARGITALPENAK

- Etxebizitzarako eskubideari buruzko azterlanak. Obrak etxebizitzarako eskubidearen azterketa sakona egiten du, politika publikoen ardatz gisa hartuta. Horretarako, Estatuaren eskumenak, arau-erregulazioa, jarduketa publikoa eta administrazioen arteko lankidetza jorratzen ditu. Era berean, etxebizitza interes orokorreko zerbitzu gisa aztertzen du, baita jabetzaren funtzio soziala eta etxebizitza babestuen eta eskuragarrien tipologia desberdinak ere. Kapituluetan zehar, doktrina, jurisprudentzia eta hausnarketa kritikoa uztartzen ditu, etxebizitza-politiken benetako eraginkortasuna ebaluatzeko. Bereziki azpimarratzen ditu lege-esparruaren mugak eta egungo testuinguruan etxebizitza duin bat eskuratzeko eskubidea bermatzeak dakartzan erronkak.



Informazio gehiago: https://rdu.es/producto/estudios-sobre-el-derecho-a-la-vivienda/

- Udal-ekipamenduak eta -zerbitzuak. 217. zk. 2026ko hirugarren hiruhilekoa.



Informazio gehiago: https://www.eysmunicipales.es/revista

DEIALDI INTERESGARRIAK

- Zaragozan egingo da Kontratazio Publikoaren Behatokiaren VIII. Kongresua: Europako kontratazio publikoaren esparru berria. Zaragoza, 2026ko abenduaren 2an eta 3an. Zaragozako Unibertsitateko Paraninfoa izango da Kontratazio Publikoaren Behatokiaren (OBCP) VIII. Kongresuaren egoitza. «Europako kontratazio publikoaren esparru berria» lelopean, topaketak arloko profesionalak eta adituak bilduko ditu, Europako kontratazio publikoaren esparruko berrikuntzak, erronkak eta bilakaera aztertzeko.

Informazio gehiago: https://obcp.es/noticias/zaragoza-acoge-el-viii-congreso-del-observatorio-de-contratacion-publica-el-nuevo-marco-dede-la-contratacion-publica-en-europa

- Dominikar Errepublikan egingo da azaroan kontratazio publikoaren behatokien sarearen nazioarteko lehen kongresua. 2026ko azaroaren 10ean, 11n eta 12an, kontratazio publikoaren behatokien nazioarteko lehen topaketa egingo da Dominikar Errepublikan. Topaketaren helburua erosketa publikoa, haren garrantzi estrategikoa eta Latinoamerikaren eta Europaren arteko elkarrizketa jorratzea izango da. Jardunaldiak lau azterketa-ardatzetan egituratuko dira:



1. Esparru geoestrategikoa, ikuspegia eta kontrola.
2. Inbertsioa eta lankidetza publiko-pribatuko elkarteak.
3. Erosketa publikoak eta politika publikoak.
4. Kontratazio publikoaren nazioarteko sistemaren berrantolaketa.

Informazio gehiago: https://obcp.es/sites/default/files/2026-05/Flyer%20Evento%20Congreso%20RD.pdf

- MAGIX, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ADIMEN ARTIFIZIALA ETA ERALDAKETA DIGITALA BULTZATZEKO EUROPAKO ESPEZIALIZAZIO-MASTERRA. MagiX – Adimen Artifiziala, Gobernantzaren Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala espezializazio-masterra onlineko prestakuntza-programa bat da, AI4Gov-X Europako proiektuaren esparruan garatua, sektore publikoan adimen artifizialaren (AA) erabilera arduratsua eta eraldaketa digitala sustatzeko.

Informazio gehiago: https://cositalnetwork.es/contenidos/1/contenido/113848/magix-un-master-europeo-de-especializacion-para-impulsar-la-inteligencia-artificial-y-la-transformacion-digital-en-las-administraciones-publicas